

Herririk Herri |4|

Durangon ur-hornidura hobetzeko akordioa lotu dute Udalak eta Aldundiak

Ekonomia |10|

'Durango txartela' 800 eroslek eskuratu dutela azaldu du +Dendakek



Berbaz |9|

Nati Nsi: "Emakume etorkinok gure eskubideak aldarrikatu behar ditugu"

Txotx Mini Ramp skate txapelketa jokoan, zapatuan Landako Gunean

- > Skatelari euskaldunen nagusitasuna "lehiatzera" datoz nazioarteko parte-hartzaile ezagunak
- > Durangoko Landako Gunean antolatuko dute lehiaketa, arratsaldeko 17:00etatik aurrera

17



Laugarren aldia izango du aurten Txotx lehiaketak. Pello Agirre

Antenen auziko epaia errekurritu egingo du Udalak

Mañaria• Arrueta auzoko errepetidorean jarritako antena bat desmantelatzea eskatu dio Udalarari auzitegietatik heldutako epai batek. Udalak epaiaren kontrako helegitea aurkeztuko duela azaldu du.

3

Gaur Ateneoan joko duen Kuntur Lee-gaz berrietan

KULTURA• Durangaldeko hiru musikaririk osatzen dute gaur gauean Borja Estankonagaz Ateneoan kontzertua eskainiko duen Kuntur Lee taldea. Gitarra akustikoa, kaxa flamenkoa eta baxua ipintzen dituzte oholtza gainean zuzenekoetan. Lier kaxa flamenkoagaz, Tximis baxuagaz eta gitarra eta ahotsak jartzen dituen Gotzan dira Kuntur Lee. Abeslaria eta kanten sortzailea den Gotzanegaz egon gara.

13

autoen gehigarria 2010



•Atxondo

Fuchosak dirua emango du kultura eta kirol jardueratarako

4

•Elorrio

Ondare libilbidea seinaleztatu duten harlauzak ipini dituzte

6

ZIKLO BERRIA

ARRETA SOZIOSANITARIOA

Ateak zabalik
Maiatzaren 20
18:00etatik 20:00etara

Aurrematrikula zabalik
Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

Matrikula zabalik
Uztailaren 7tik 13ra

Tel.: 944.66.88.00 • www.iurreta-institutua.net • 014950aa@hezkuntza.net

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Ur-hornidurarako sare berria eraikitzeko hitzarmena lotu dute Udalak eta Aldundiak

Urtebeteko epean sare berria martxan ipintzea aurreikusi dute



Udaletxeko areto nagusian egin zuten sinadura ekitaldia Irigorasek eta Madariagak.

osu Madariaga Ingurumeneko foru diputatuak eta Aitziber Irigoras Durangoko alkateak ur-hornidurarako sare berria eraikitzeko hitzarmena sinatu zuten atzo. Biek ala biek, "aurrekontuan egin den esfortzua" nabarmendu zuten; 1,8 milioi euro daude aurreikusita lanetarako, eta Durangoko etxeetan ur-hornidura orokorra "hobetu" egingo dela adierazi

zuten. 15 egunen buruan itxaroten dute lanak hasia, eta urtebetean zerbitzua martxan ipintzea.

Biltegi berri bi

Edateko uren araztegia Garaizar gainetik datorren ur-bideagaz lotuko da. Hodi bikoitza eraikiko da, ura Eguzkitza sektoreko beheko aldean jarriko den biltegi berriraino bideratu eta gero handik bana-

tzeko, Udalaren banaketa-sareagaz lotu arteko tartean. 4.000 m³-ko erregulazio biltegiari esker, hirigune guztian presioen banaketa egokia bermatuko da.

Gainera, hemengo bulkaden eraginez, Eguzkitzagoienan sortuko den beste biltegi batera bideratuko da ura; 1.000 m³ izango ditu, eta herriko goi-aldeei hornidura eskainiko die. ■ M.O.

Ogasuneko bulego berrira bisita ofiziala egin dute

Foru diputatuak eta alkateak bertatik bertara ezagutu dute egoitza berria eta funtzionamendua

Zaharberritu ondoren, atek zabalik ditu Ogasuneko bulego berriak, eta atzo bisita egin zuten José María Iruarrizaga Ogasun diputatuak eta Aitziber Irigoras alkateak.

Iruarrizagaren esanetan, "behin-behinekoa izan den bulego baten ondoren, egoitza egoki bat sortu da azkenean". Irigoras ere "pozik" azaldu da, Durangoko eta Durangaldeko herritarrentzat albiste ona dela gaineratuz. Bere ustez, "egindako hobekuntzagaz, administrazioa jendearengandik

Bulegoan sei informatzaile, arduradun bat eta errenta likidatzaile bi daude



Erabilgarri daude, dagoeneko, Ogasuneko instalazio berriak.

"Egindako hobekuntzagaz, administrazioa jendearengandik hurrago egondo da", Irigorasen ustez

Udaleko lehenengo Berdintasun Plana martxan da

Plana "herritarren parte-hartzeagaz osatu izana" nabarmendu gura izan dute udal ordezkariak

Herrian martxan jarri duten lehenengo Berdintasun Plana aurkeztu zuten, eguazten arratsaldean, Pinondo Etxean. Agerraldian, udal ordezkariak gainera, Elhuyar Aholkularitzako ordezkariak planaren inguruko azalpenak eman zituzten.

Berdintasun Plana ekimen baten "abiapuntua" dela azaldu zuen Aitziber Irigoras alkateak, eta herritarren "parte-hartzeagaz" osatzea nabarmendu zuen.

Elhuyar Aholkularitzak herritarren eta Udalaren arteko bitartekari lana egin du planaren osaketan. Diagnostikoa egiteari 2007an ekin zioten, herriko berdintasun egoera zein zen aztertzeko. Parte-hartze prozesuan 2008an eta 2009an herritarren ekarpenak jaso dituzte. Herriko elkarte, sindikatu, udaleko teknikari, zinegotzi, eragile eta herritarrak zortzi lan-taldetan banatu dituzte. Plan honek

"Emakunderen laugarren plan-gintzagaz eta Berdintasun Legeagaz" bat egiten duela azaldu zuten udal ordezkariak. Plana garatzeko herritarren mahaia eratu dute.

Goiztidi Diaz berdintasun zinegotziaren berbetan, planaren helburuak "zeharkakotasuna, ahalduntzea, genero indarkeria eta erantzukidetasuna" dira. Gaineratu duenez, "plana erreminta bat da berdintasunaren aldeko ekintzak antolatzeko". Ekimen honetan Andraguneak duen garrantzia azaldu zuen, "herriko emakumeek topagune bat izan dezaten". Emakume kontseiluaren lana ere gogoratu zuen. ■ J.D. / J.G.

Herriko elkarte, sindikatu, udal teknikari, zinegotzi, eragile eta herritarrak zortzi lan-taldetan banatu dituzte

ABADIÑO

Hirigintza genero ikuspegi batetik aztertze bilerak

Maiatzerako eta ekainerako deitu ditu Udaleko Berdintasun Sailak hirigintzari buruzko tailerrak

Herriko hirigintza diseinuaren eta azpiegituren inguruko azterketa egitera gonbidatu ditu herritarrak Udaleko Berdintasun Sailak; azterketa hori emakumeen ikuspegitik egitera, hain zuzen

Segurtasunagaz eta irisgarritasunagaz lotutako gaietan hobekuntzak proposatuko dituzte

Berbarok kudeatuko ditu Udalekuak

Maiatzaren 24ra arteko epea dago iaz 146 ume batu zituzten eta Berbaro euskara elkarteak kudeatuko dituen udalekueetan izena emateko: Errota eta Txanporta kultur etxeetan izango da izena emateko aukera. Uztailearen 1etik

ere. Maiatzaren 24, 25 eta 26rako, eta ekainaren 5, 14, 15 eta 26rako egin dituzte hitzorduak. Hirigintza antolamendua diseinatzerakoan duela gutxira arte emakumezkoen ikuspegia ez dela aintzat hartu izan nabarmendu, eta "arlotan horretan dauden gabeziak jasotzeko" helburua dutela tailerrok azaldu du Berdintasun zinegotziak. Segurtasunagaz eta irisgarritasunagaz lotutako hobekuntzak proposatuko dituzte bilerotan. ■ I.E.

16ra, talde bitan banatuta (Trañamatenako eskolan bata eta Zelaietako eskolan bestea) jardungo dute umeek, eta euren ipor egunetako aisialdia euskaraz igarotzeko aukera eskainiko zaie, Berbarok antolatutako umeendako hainbat jolas- eta jarduera-programa baliatuta horretarako.

Uztaileko lehenengo hamabostaldian, 10:00etatik 13:00ak arte batuko dira udalekueetan izena ematen duten umeak. ■ I.E.



MAÑARIA

Arruetako antenetako bat kendu dezala eskatu dio Auzitegi Nagusiak Udalari

Epairen kontrako helegitea aurkeztuko duela aurreratu du Udal Gobernuak

Auzokideek Arruetako antenen auzian apirilean jaso zuten Bilboko Administrazioarekiko Auzietako laugarren salaren epaia. Epaitegiak auzo horretako errepetidorean jarritako antena bat desmantelatu dezala eskatzen dio Udalari.

Auzokideen berbetan, epaiak azaltzen duenez, EAeko Ingurumen Babesteko Lege Orokorren arabera "jarduera sailkatua" izan behar da "pertsonengan eta ingurumenean kalteak sorrarazi ditzaken jarduera bat delako" eta prozedura administratiboaren arabera, "Udalak Ingurumen Sailaren eta Osasun Sailaren txostenak eskatu beharko lituzke".

Arau subsidiarioetan ezarritako "distantziak ere ez direla betetzen" dioela sententziak gaineratu dute. "Enpresari Udalak eremu elektromagnetikoen txostena ez dio eskatu, eta sententziak puntu hori ere jasotzen du".

Arruetarrek pozik hartu dute auzitegien ebazpena. Udalak auzokideekiko "begirune gutxigaz" jokatu duela salatu dute, "enpresen interesak lehenetsiz, auzokideen ongizatearen ginetik". Gogoratu dutenez, errepetidoretik kanpora dagoen beste antena bat ilegala zela "Udalak berak onar-

tu zuen", eta nahiz eta enpresak epea ez bete Udalak baimena eman diola azaldu dute "lekuz aldatzeko eta hiru hile gehiago eman dizkiote antena desmantelatzeko". "Enpresa horri beste edozein herritarri legea betetzerako orduan ematen ez zaion pribilegioa ematen ari da Udala", nabarmendu dute.

Udalaren errekurtsioa

Auzitegiak kaleratutakoa, baina, ez da behin betiko sententzia, eta, beraz, maiatzaren 20ra arteko tartea dago helegitea aurkezteko. Udal Gobernuak ordezkariek aurreratu digutenez, errekurtsioa aurkeztuko du Udalak. Gobernu Taldeak defendatzen duenez, "Movistar enpresari telefonia mugikorreko antena jartzeko baimena Euskal Autonomi Erkidegoko orduko legediaren arabera eman zitzaion orain urte batzuk". Jeltzaleek nabarmentzen dutenez, sententzia hiri-lurrean kokatutako ante-

nei dagokie, eta ez, euren berbetan, Udalak "telekomunikazio azpiegiturentzako kalifikatutako lursail" baten kasuari.

Helburua "telebistarako eta telefoniako antenek dauden lekuan, orain 20 urte teknikari batek apropos iritzi zuen lekuan, jarraitzea" dutela azaldu digute Udalean. Batetik, "Udalak ez du antenak jartzeko beste lurrik", eta antenetatik "inguruko etxebizitzetarako distantziak ez dira txikiak", jeltzaleek diotenez. ■ I.E.

Apirilean jaso zuten Arruetako auzotarrek EAeko Auzitegi Nagusiak emandako sententzia



Errepetidoreko antena bat kentzeko eskatu du Auzitegiak. J.F.

Azaleko minbiziari buruzko berbaldia maiatzaren 20an

Eguenean, 18:00etan, Udaletxeko batzar aretoan, 'Azaleko minbizia, eguzkitik nola babestu' hitzaldia

Maiatzaren 20an, eguenean, 18:00etan Udaletxeko batzar aretoan da azaleko minbiziari buruzko berbaldiaren hitzordua, eta Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkartearen ordezkariek dira berbaldia eskainiko dutenak. Azaleko minbiziaren gaineko informazioa eta prebentziorako gomendioak zabalduko dituzte AECC elkartearen ordezkariek.

Azaleko minbiziaren gaineko kontzientziazioan beste pausu bat ekainaren 14an emango dutela azaldu dute Udalean: egun horretan, Minbiziaren Kontrako Elkartearen unitate mugikor bat etorriko da herrira: bertan, nor-

bere azalaren ezaugarriak eza-gutzeko probak egin ahalko dira, horren arabera bakoitzak behar duen babesa hautatu dezan bere azalaren osasuna zaintzeko.

Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarteak eta Udalak antolatuta dute egueneko hitzaldia

Ekainak 14an, bestalde, Minbiziaren Kontrako Elkartearen unitate mugikorra ekarriko dute Mañarira

uda topera 2010

txiki txoko

abentura

hiri kanpamendua

ingelesez olgetan

IZENA EMATEKO EPEA
Maiatzaren 17tik 27ra arte
 Lekua : Pinondo Etxea (Informazio bulegoa)
 Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00 / 17:00-19:00
 Ostiralak: 10:00-14:00
 www.durango-udala.net

ATXONDO



Fuchosara heltzeko egunean 60 bat kamioi pasatzen da herritik.

Fuchosak kultura eta kirol jardueratarako dirua emango du

Herritik kamioiak desbideratzeko bidea dela-eta hitzarmena sinatu dute fundizioak eta Udalak

Bost urtetan 6.000 euro emango ditu urtero Fuchosa S.L.-k kultura eta kirol jardueratarako. Diru hori herritik kamioiak desbideratzeko egingo den bidea dela-eta emango du, Udalgaz sinatu berri duen hitzarmenak dioenez.

Fundiziora doazen kamioiak Atxondo erditik pasatzen direla-eta, saihebidetako egingo dute aurretik. David Cobos Atxondoko alkateak azaldu duenez, legegintzaldi hasieran Fuchosagaz behin behineko bide horri buruz berba egin zuen Udalak: "Bidea egiteko eurek diruz laguntzea proposatu genien, eta prest agertu ziren". Azkenean, Estatuak tokiko inbertsioetarako ematen duen diru-laguntzagaz egingo dute bidea.

Orain Udalak proposamen berria egin dio Fuchosari:

"Saihebidetako eman behar zuen dirua edo zati bat herriaren onurarako jartzea proposatu genien, eta gertu daude". Alkateak nabarmendu duenez, fundizioa ez dago horretara behartuta: "Egoera ekonomikoa ona ez bada ere, bere borondatez lagunduko du".

Uztaila hasieran hasteko

Gaztetxe albotik eta Urkuzu osetetik joango da bidea Fuchosara. Lanak ekainean esleituko ditu Udalak. Ekaina amaieran edo uztaila hasieran hasiko dituzte saihebidetako lanak, eta urte amaierarako amaitu. ■ A. U.

Saihebidetako ipini behar zuen dirua "herriaren onurarako" emango du

MALLABIA

Argazki zaharren erakusketa ikusgai

Gerediaga elkarteak Orraitio euskara elkarteagaz elkarlanean herriko argazki zaharren erakusketa antolatuko du Liburutegian. Ekimen hau Aste Kulturaleko programazioaren barruan sartu dute. Erakusketa honen helburua herriko historia, arkitektura eta gizartearen hainbat arlo herritarrei argazkitan hurbiltzea da. Eskualdeko ondarea zabaldu guran Gerediagak hamabi panel jarriko ditu, irudiekin eta bakoitzari dagokion azalpenarekin. *Mallabia: herri eta hegaz eta oinez* izenburuko erakusketa maiatzaren 15etik 23ra Liburutegian dago ikusgai.

Hamabostaldia martxan jartzeko erakusketaz gainera, zapatuan nesken saskibalo partidua antolatuko du, 11:00etan, Mallabia futbol taldeak, eta guraso elkarteak herri-bazkaria udal pilotalekuan. Domekan, futbol taldeak umeendako zine emanaldia prestatuko du, eta Biharko Izarrak pilota txapelketa Mallabia I udal pilotalekuan. ■ J.G.



Gerediaga elkartea

Informatika ikastaroa txoko-batzokian

Ikastaroak eskaintzeari ekin dio Mallabiko txoko-batzokiak. *Teknologia berriak* ikastaroa damaiatzaren 29an martxan jarriko dute. Interneten inguruko gaiak lantzeko hitzordua 10:00etatik 13:00etara jarri dute. Izena ematen duen jendearen ezagutzaren arabera erabakiko dute zer gai landu.

'Teknologia berriak' ikastaroa emango dute txoko-batzokian

Ikastaroaren arduraduna Luismi Prego informatikoa izango da. Ekimenaren bultzatzaileak azaldu dutenez, ikastaroa herritar guztiei zabaldua dago eta parte hartzeko deia egin dute. "Ikastaro bat antolatzen dugun lehenengo aldian da, eta harrera ona badauka beste gai batzuen ingurukoak eskaintzeko asmoa daukagu", dio Gema Atxa txoko-batzokiko arduradunak.

Intxaurti kaleko 8. zenbakian kokatua dagoen lokalean bi ordengailu daukate, eta bertan emango dute informatika ikastaroa. Euskal Herriko lehenengo txoko-batzokiak urtebete egingo du aurretik.

Ikastaroak harrera ona badauka, beste batzuk antolatuko dituzte

ZALDIBAR

Liburutegiaren inagurazio ofiziala ospatuko dute gaur

Liburutegi zaharretik berrirako pausua irudikatuko dute ekitaldian

Zaldibarko Liburutegi berriaren inagurazio ofiziala egingo dute gaur, eguerdiko 12:30ean. Idoia Mendiolarai alkateak azaldu duenez, "ekitaldi berezia egin gura izan dugu, egunero ez da eta liburutegi berri bat zabalitzen". Inaugurazio ekitaldira joateko 30 bat gonbidapen banatu ditu alkateak. Horien artean, ekitaldian Josune Ariztondo Bizkaiako kultura diputatua, Valentín Lasuen Zaldibarko liburutegi zaharretiko bultzatzailea eta Gerediaga elkartearen kide izandakoa, Durangaldeko alkateak, Gerediagako kideak, Zaldibarko eskolako zuzendaria, guraso elkarte eta

umeak eta Durangaldeko liburu-zainak parte hartzea aurreikusten dute, eta gura duten herritar guztiek ere parte hartu dezakete.

Ekitaldia liburutegi zaharrean hasiko da, Idoia Mendiolarai alkateak emandako hitzaldi labur batez. Liburutegi zaharrak 38 urte beteko ditu aurretik, eta liburutegiaren historiari erreparoa egingo dio alkateak. Liburutegi zaharra 1972ko uztailaren 14an inaguratu zuten, 2.011 liburugaz. Gaur egun liburutegi berriak 13.415 liburu dauka.

Ondoren, parte hartu gura duten guztiekin giza kate bat egingo aurreikusi dute, liburutegi zaharretik berrirako pausua irudikatuko dute ekitaldian

Liburutegi zaharretik berrirako pausua irudikatuko dute ekitaldian

Liburutegia Liburu Egunean, orain hiru aste, zabaldu zuten, eta hamabost egunean, Liburutegian 26 bazkide berri egin dituzte. ■ G.A.

Alkatearen hitzaldiak hasiko du ekitaldia, eta Liburutegi berria ikusiz amaituko da

GARAI

San Isidro Eguna ospatuko dute bihar

Baztanera irteera ere antolatu du San Migel nagusien elkarteak astelehen honetarako

Biharko, San Isidro Egunerako, egitaraua antolatu du Garaiko San Migel nagusien elkarteak, eta bertara animatzeko deialdia ere egin die herritarrei.

Eguerdiko 12:00etan meza santua izango da, egunari hasiera emateko. Horren ondoren,

Eguerdiko 12:00etako meza santuaren ondoren, herri-bazkarian elkartuko dira Herriko Tabernan

herri-bazkarian elkartuko dira, Herriko Tabernan. Menu dotorea dastatzeko aukera izango dute, paella, legatza eta abarrek.

Baztanera

Irteerak antolatzeko ere badu ohitura nagusien elkarteak. Astelehen honetan izango da hurrengo, Baztan aldera. Bertan, Urdaxeko kobak bisitatuko dituzte, eta gero bazkaria izango dute, hango ardo eta jakiak probatuz. Tripa bete eta gero, Superbingoa eta diskofesta izango dituzte, buruak eta gorputzak animatzeko. Goizeko 09:30ean ipini dute hitzordua. ■ M.O.



INSTITUTO ESPECIFICO
DE FORMACION PROFESIONAL
SUPERIOR

ZORNOTZA

GOI-MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERARIAZKO
INSTITUTUA

Ikasketa Berriak zure Etorkizunerako



e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com

Tel.: 94 673 02 51

Goi mailako zikloak

- Informatika-aplikazioen garapena
- Industri-ekipoen mantenimendua

Erdi mailako zikloak

- Merkataritza
- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa
- Soldadura eta galdaragintza
- Mikroinformatika eta sareak sistemak

Ziklo guztiak Euskaraz eta Gaztelaniaz

Datak

Aurrematrikula: Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra
Matrikula: Uztailak 7tik 13ra

Beste prestakuntza kurtso motak

Eskaintza partziala *

– Erizaintzako laguntza osagarriak

Zikloetarako sarbide probak egiteko prestakuntza-ikastaroak *

Prestakuntza etengabekoa eta okupazionala

Zerbitzuak

- Erasmus
- Leonardo
- Urrats bat
- On-line ikastaroak



ELORRIO

Harlauzekin seinaleztatuko dute Ondare Ibilbidea

Elorrioko eraikin eta monumentu esanguratsuenen ondoan ikusi daitezke

Elorrio altxor kultural eta historikoan lotu eta bateratu-ko duen Ondare Ibilbidea geroago eta osatuago dago. Uztai-ko Berrio-Otxoa egunerako dena prest izatea dute helburu, eta ildo horretatik apurka-apurka pausuak ematen dabilta; azken aste honetan bertan: ibilbidearen noranzkoa markatuko duten 32 harlauzak kokatu dituzte.

Harlauza gorriak dira, Elorrioko logotipo berria dutenak; gezi batez hurrengo geralekua markatzen dute, eta ondoan zenbaki bat dute. Izan ere, harlauzak monumentu edo eraikin esangu-

Uztai-ko Berrio-Otxoa egunerako dena prest izatea dute helburu

Harlauzez gainera, 42 plaka ere ipiniko dituzte ondare bakoitzaren ondoan

ratsuen ondoan egongo dira, eta zenbaki hori audiodiekin doazen bisitari eta turistentzako klabea dira. Tresnatxoan zenbaki hori markatu eta ondoan duten ondarearen informazioa entzun ahal-ko dute hainbat hizkuntzatan.

Harlauzez gainera 42 plaka ere ipiniko dituzte ondare bakoitzaren ondoan. Plaka horiekoinarrizko informazioa izango dute, eta jatorriaren inguruko zehaztasun batzuk.

Lehenengo harlauza Udaletxe parekoa izango da, eta handik alde zaharrera egingo du ondare ibilbideak. ■J.D.



Audiodigidak jarriko dituzte turista eta bisitariendako.

Boulderra erakitzen dabilta 'maisuen etxean'

Adolfo Madinabeitia eskalatzaile arabarra dabil lau metroko altuera duen boulderra sortzen

Eskaladaren zaletuek boulderrean aritzeko gune berria izango dute laster. Boulderra eraikitzeari ekin diote 'maisuen etxe'-ko beheko solairuan. Adolfo Madinabeitia da horma eratzeko arduraduna. Herriko eskalatzaileek zer mota-tako boulderra gura duten azaldu zioten eskalatzaile arabarrari, egitura sortu zezan.

Ezaugarriak

Boulderrak hainbat gune izango ditu. Beroketa lekuan hasiberriek lehenengo pausoak emateko aukera izango dute. Eraikitako boulderrak lau metroko altuera dauka, eta 2.500 heldulekugaz ekipatu dute. 'L' forma duela azaldu digute ekimenaren bultzatzaileek. Gainera, zailtasun ugaritako bideak osatu-

ko dituzte maila guztietako zaleek parte hartu dezaten.

Eskalada gogoko duten makina bat kirolari dago herrian. Boulderra erabilgarri izango dutenez, eskalada elkarte sortzeko asmoa dutela azaldu dute. ■ I.E.

Zailtasun ugariko bideak osatuko dituzte maila guztietako zaleek parte hartu dezaten

Eskalada gogoko duen makina bat kirolari dago herrian. Elkarte sortzeko asmoa dutela azaldu dute

IZURTZA

Herriko armariaren irudia zein den behin betiko finkatuko dute Udalean

1980ko hamarkadan udalbatzarrak onartutako armariaren deskribapena egokitzea gura dute

Udalak kaleratu behar dituen kar-teletan, frontoian eta olio batze-ko ipiniko duten makina berri-herriko armariaren irudia ipin-tzera joan direnean, arazo bate-gaz topo egin dute udal ardura-dunek: iturriaren arabera, irudi desberdinak agertzen ditu Izur-tzako armariak. Horrek bultzatu du Udal Gobernuak, Aldundiaren

artxiboak aztertu ondoren, Uda-lean dagoen armariaren deskri-bapena aldatzea proposatzera. 1980ko hamarkadan udalbatza-rrean onartu zuten eta ordutik indarrean dagoen armariaren deskribapenean, Izurtzako arma-riaren "artzain bat, ardi bi eta otso bat" agertzen direla esaten da. Udalean egin duten azterketaren, eta artxibo historikoetako deskri-bapenen arabera, "txakur bi, ehi-zan dabilen jauntxo bat eta basur-de bat" dira Izurtzako armari-ko irudiak, eta azken deskribapen hau onetsi gura dute Udalean.

Aldundiaren artxiboetan egin dute Udalaren armariaren gaineko azterketa

OTXANDIO

La Guardiara irteera egingo du 27an Pasealeku jubilatuen elkarteak

Interesatuak 17:00etatik 19:00etara eman dezakete izena Jubilatuen Elkarte-ko egoitzan

Pasealeku jubilatuen elkarteak La Guardiara (Errioxa) egunpasa antolatu du maiatzaren 27rako. Izena Jubilatuen Etxean bertan eman daiteke, arratsalde, 17:00etatik 19:00etara. Izena emate-35 euro da (bidaia, bodegara bisita eta bazkaria).

Autobusak 09:30ean irtengo du geltokitik. Goizean herria bera bisitatuko dute eta eguerdian, 12:00ak inguruan, Palacios bode-

gara joango dira. Han bodegako gorabeherak kontatuko dizkiete bisita gidatu bategan. Bazkaldu ere Palacios bodegan bazkalduko dute. Ondoren, Logroñora joango dira, eta han egingo dute arratsalde-pasa.

Ekainerako beste irteera bat egitea aurreikusi dute. Aldaketa-rik ezean, ekainaren 17an izango da Marietatik Landarako ibilaldia. ■J.D.

IURRETA

Diru-laguntza eskatu ahal izango da seme-alaben hezkuntza gastuetarako

Diru-laguntza kendu ez, baina diru-laguntzaren kopuru osoa murriztu egin du Udalak aurtan

2009-2010 ikasturtean euren seme-alaben hezkuntza gastua ordaintzen laguntzeko, Udalak eskaintzen duen diru-laguntza maiatzaren 17tik 28ra arte eskatu ahal-ko dute iurretarek. Seme-alabak haurreskolan dituztenek zein DBHko ikasle gurasoek eta tarteko maila guztietakoek eskatu ahal-ko dute Udalaren diru-laguntza, ikastetxeak publikoak zein pribatuak izanda ere.

Eskabidea egiteko orria, erregistroko bulegoetan edo www.iurreta.net helbidean eskuratu eta Udaletxean edo Kultur

Ikastetxeak, publikoak zein pribatuak izanda ere, maiatzaren 17tik 28ra arte aurkeztu daitezke eskaerak

Seme-alabak haurreskolan eta DBHn dituztenek 75 euro eta lehen hezkuntzakoek 20 eta 45 euro artean jasoko dituzte

Etxean aurkeztu behar-ko dute. Eskari orria beteta, eskatzailearen NANaren kopia eta familia-liburuaren kopia konpultsatua eta Udalak emandako hirugarrenen alta-inprimakia aurkeztu behar-ko dituzte eskatzaileek.

Umea haurreskolan edo Bigarren Hezkuntzan dutenei 75 euroko diru-laguntza emango die Udalak, eta 20 eta 45 euro arteko seme-alabak Lehen Hezkuntzan dituztenei: 3 eta 5 urte artekoentzako 20 euro, 6 eta 9 urte artekoentzako 30, eta 10 eta 12 urtekoentzako 45 euroko diru-laguntza eskainiko duela iragarri du Udal Gobernuak asteon.

Iaz lehenengoz eskainitako diru-laguntzaren kopuru osoan murrizketa nahiko sakona egin du Udalak aurtan. Gobernu Taldeak aurrekontuak aurkeztu zituenean azaldu zuenez, Udalean aurtan izango den diru-sarrera gutxitze-egokitu behar izan dute gastua, baina gastu soziala "ahal den neurrian mantenduz". ■I.E.



BERRIZ



Kanposantutik abiatzen den bidearen zorua atonduko dute.

Balio ekologikoko bi ibilbide atontzen

Oka errearen ertzetik doan baso-bidea da bat, eta Matzagabarrenatik Eitua Poligonora doana bestea

Berrizen balore ekologikoa duten bi ibilbide egokituko ditu Berrizko Udalak, Bizkaiako Foru Aldundiaren diru-laguntzaz. Jabier Azpitarte, Berrizko alkateak azaldu duenez, "proiektu horrek, guztira, 150.000 euro inguruko kostua du, eta Foru Aldundiak 85.000 euroko diru-laguntza emango du" ingurunea lehengoratzeko.

Bi ibilbide horietatik bat, geltoki kaletik kanposanturaino doa, Oka errearen ertzetik. Alkateak azaldu duenez, "ia kilometro bat

duen baso-ibilbidea egokitzeko hondarra ipiniko dugu, eta jesarleku batzuk ere bai. Argiztapenari dagokionez, farolak ez dira gau osoan piztuta egongo".

Bigarren ibilbidea, Matzagabarrena auzotik Eitua poligonora doa. Alkateak azaldu duenez, "pertsonek igarobideaz egindako bidea dago, eta hori hormigoiz ipinita, pasealeku edo bizikletaz ibiltzeko aukera egongo da". Bide horiekin "aisialdirako gune eta industriagunegaz lotura lortuko dugu". ■ G.A.

Andikoako Asentzio jaiak asteburuan

Andikoako Asentzio jaiak zapatu honetan hasten dira, donien atxaren jasotzeagaz. Domekan, Asentzio Egunean, 11:00etan meza nagusia egongo da, eta 11:45ean Berrizko Iremiñe taldeko dantzariak ikusteko aukera. 12:30ean hiru segalariren arteko lehiaketa mundiala, bakoitza korrikalari eta animalia batek lagunduta. Giroa alaitzen, auzoko trikitilariak ibiliko dira. Arra-

Berrizko Iremiñe taldea ikusteko aukera egongo da, domekan, 11:45ean

Hiru segalariren arteko lehiaketa, korrikalari eta animalia batek bakoitza

tsaldean, berriz, 17:30ean, astozaldi probak; Suetzako astoa eta Gaizkaren zaldi pinttoa nor gehiagoka arituko dira. Proba ondoren, bolo-joko txapelketa izango da; parte hartu gura dutenek hiru euro ordaindu behar dute izena ematean. Irabazleak 42 euroko saria irabazi dezake.

Datorren zapatuan, auzotarren afaria egongo da, bertso-lari eta trikitilariekin. ■ G.A.

Igogailuak ipintzeko irizpideak

Igogailurik ez duten etxe zaharretan igogailua ipintzeko irizpideak aho batez onartu zituzten eguazteneko ohiko bilkuran. Gorka Camara Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, "igogailuak eraikinaren kanpotik ipintzeko herritarren hainbat eskaera jaso ditugu, eta irizpideak ipintzea beharrezkoa zen".

Beraz, posible den guztietan igogailua eraikinaren barrualdean kokatuko dute. Ezin bada, kanpoaldean ipiniko dute, beti ere, ezaugarri hauek betez: eraikinak inguruan lursail pribatua izango balu, bertan ipiniko litzateke. Ez balego, ez du espazio publikoan pasatzea oztopatu behar; horrela balitz, komunitateak pasabidea egokitu beharko luke. Estetika irizpideak kasuan kasu aztertuko dituzte. ■ G.A.

AdieraziEH eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarria



Zapatuan ospatu zuten Berrizen Adierazi EH: eskubide zibil eta politikoen aldeko ekitaldia. Musika, antzerki eta esperientzien bidez eskubide zibil eta politikoen aldarria zabaldu zuten. Antolatzaileek testigantzen aniztasuna azpimarratu dute. Sektore ezberdinetako bederatzi lagunek euren esperientziak kontatu zituzten; EHNEko Unzalu Salterainek Laborantza Ganbaraz, Jabier Azpitarte Berrizko alkateak edo Miren Amuriza bertsolariak, tartean.

ABADIÑO

Gerediagakoek auzo-bazkaria egin zuten, dantzari eta guzti

Urteroko zita izan zuten, joan zen barikuan, gerediagarrek; maiatzaren bigarren larunbatean egiten dute auzo-bazkaria. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "auzotar gehienak batzen garen urteko egun bakarra da". Meza ondoren, auzoko dantzariekin eta irlanderekin, trikitiagaz eta bertsoekin amaitu zuten goizeko ekitaldiak. Ondoren, "Plateruenean gozo-gozo bazkaldu genuen eta erromeria alaiagaz gozatzeko aukera izan genuen iluntzera arte", diote antolatzaileek.



DURANGO

Euskal Eskoutak Durangon batu ziren 'Gorka Deuna' ospatzeko

Euskal Eskout Federazioagaz 'Gorka Deuna' eskouten patroia ospatzeko gazte, familia eta monitorean artean 4.000 pertsona inguru bildu ziren Landako Gunean domekan. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroatik etorritako 44 eskout talde batu ziren. Gipuzkoan ez dute Eskout Federaziorik. Ekitaldian behin-behineko jardin bat prestatu zuten euren ekarritako loreekin; erromeria, kalegira eta mago baten ikuskizuna ere izan zuten.



IURRETA

Pisu libreko asto-probak ikusteko aukera asteburuan

Iurretan gaur hasi eta domekara arte I. Pisu Libreko Asto-probak antolatu ditu Harria Herri elkarteak. Barikuan, maiatzaren 14an, 22:00etan, hiru asto ariko dira lehian; Leire Uranga, Urrola eta Duñabeitia. Zapatuan, maiatzaren 15ean, 22:00etan, beste hiru asto ariko dira lehian; Goizeder Jatetxea, Zelai-Alai hipika eta Maiora elkarteak. Domekan, arratsaldean izango da norgehiagoka Kimera, Urkiaga, Construcciones Vitorio Zelaia eta Olabeitia astoak ariko dira harriari tiraka.

MAÑARIA

Plater jaurtiketa da Maiatza Kulturalaren ekitaldietako bat

Maiatza Kulturalen hainbat ekitaldi antolatu dituzte; Plater Jaurtiketan aritzeko aukera egongo da, maiatzaren 15ean, Garaitarren, 10:00etan. Mugarra Ateneo Cinegético elkarteak antolatutako ekitaldian parte hartu gura dutenek alde aurretik edo egunean bertan, 10:00etatik 18:00etara, izena eman dezakete. Domekan, berriz, Bordeleko feriara irteera egingo dute 20 euroren truke; joan gura dutenek Udaletxean eta Liburtegian eman behar dute izena, eta gutxienez 30 lagun bildu behar dira.

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
Drekozinatua

IRITZIA >

Gutunak

Gazteok sortua gazteontzat

Durangon urteetan zehar gazteok antolatutako gune eta alternatiba ugari egon dira; Gaztetxean egindako kontzertuak, jaietan antolatutako egunak, txosnak..., Ikastetxeetan ere ikasle egunak eta beste hainbat kontu. Baina, hala ere, oraindik gabeziak egon badaude. Aisialdian, adibidez, ez dugu gazteontzako gunerik, ezta aukerarik ere. Taberna zuloan edo lokaletan egotera behartzen gaitu egoera honek, jaietan ere alternatiba gutxi ditugu, eta askotan ez dugu aukerarik ezta gure artean ezagutzeko ere; bakoitza bere lagunekin gauzez mozkortu eta egunez lo.

Egoera erraza ez dugun arren, geuk eraikiko ditugu gure alternatibak, guk zabalduko ditugu gure ateak, gure amets eta ilusioak aurrera eramatea gura dugulako. Horretarako gazte konparatibak sortzea pentsatu dugu, gazte denon interesak batuko dituen gazte esparrua, denok zer esana eta zer ikasia edukiko dugun esparrua, bakoitzak dakiena erakusteko eta ez dakiena ikasteko lekua, gazteok behar dugun herria sortzeko aukera ezin hobe. Gazteok sortua gazteontzat.

Hau guztia martxan jartzeko maiatzaren 21ean Pinondon batuko gara arratsaldeko 18:00etan. Bertan denok izango dugu gure iritzia emateko aukera, beraz, animatu eta etorri. Bertan ikusiko gara.

Durangoko gazte mugimendua

Langileok krisiaren aurrean

Orain dela gutxi Obama "nagusia" entzun ahal izan genion finantza erreformaren gainean neurriak azaltzen, ikusmin handia piztu zuen erreforma. Batez ere, Wall Street-eko oligarkiaren muinean, izan ere, aurretiaz ohartarazi zioten gobernuari beraiekin ez bukatzeko. Lasai egon daiteke oligarkia finantzia erreforma hauen aurrean, orain arte bezala, Obamaren politika ekonomikoak mundu osoko inbidia izaten jarraitzea baitu helburu.

Atzerapenik gabe, Zapatero jendaurrera azaldu da Espainia krisitik ateratzeko hartu dituen neurrien berri emateko, ez dira (oraindik) Europako kapitalak Grezian hartutakoak bezain gogorak. Modu zorrotzean, baina aldi berean kontu handiarekin jokatuz, murrizketekin hasi da defizit publikoa gutxitzen; soldata publikoen izozteak eta murrizketak, pentsioen murrizketak, haur txeeen desagerpena... Neurri "zenezudunak" dira hartutakoak, nola edo hala, langile klasea eta langabetuak kaltetu zuzenak ez direlako, baina ez dira herritarren borondatezkoak eta ez dugu ahaztuko, publikoki iragarritako lehenengo neurriak izan direla.

Krisiarekin bukatzeko, Zapaterok politika soziala ez duela murriztuko onartu du, Greziako langilegoaren eztanda kutsakorra prebenitzeko asmoz, baina zer politika sozial? Industrian eta Fomenton gastua gutxituko du eta AHTaren obrei buruz ez dugu ezer entzun; Euskal Herrian inoiz egin den inbertsio handienari buruz, hain zuzen ere. Azpiegitura honetarako dirua bideratzen den bitartean, etxebizitza sozialetan, osasunean, hezkuntzan, etab... murrizten ari da. Eta zer esan diru publikoa banku pribatuetan sartzeko erabakiari buruz; politikari "ezkertiar" baten politika sozial on bat, noski.

Europa krisialditik ez dute ez neurri hauek ezta Grezian hartutakoak ere aterako, FMI eta Banku Mundiala ez baitira langilegoari laguntzeko sortu. Langileok ez dugu behar sistemaren erreforma bat: benetako aldaketa estruktural bat behar dugu. Krisia eta kapitalismo hitzak atxikituta daude; hau da, etengabeko krisia da kapitalismoa.

Zoritxarrez, langileak burgesiaren erasoaren aurrean defentsarik gabe aurkitzen gara, babesgabeketa eta, aldi berean, desstrukturatuta eta desorganizatuta. Bankaren nazionalizazioa, ekoizpen bitarteko guztien espropiazioa eta langile klasearen boterearen lorpena, gaur egun ahaztu diren kontzeptuak direla dirudi. Laburbilduz, krisitik irten nahi badugu: organizazioa, borroka eta langilegoaren diktadura!

Iker Oñate Barrainkua

Sei hankako mahaia



Mikel Basabe Aralar

Ezkuntza

Horrextan dira aditu: ezkuntzan. Eta zein ondo egiten duten!

Orain hamabost egun irakurri genion Legebiltzarreko presidente Arantza Quirogari: euskara erkidego honetako "bigarren hizkuntza" da, eta, gainera, arrazoizkoa ez den egoera dago. Hau da: euskara gehiegi bultzatzen da, eta gaztelania baztertu. Are gehiago: lanpostu batera ailegatzeko diskriminazioa da euskara, beti ere legebiltzarreko presidentearen arabera. Ez da, noski, bere kasua. Ia egun berean, lehendakariari egiten zioten elkarrizketa beste medio batean. Hartan, kazetariak esaten zion "euskarak jakiteak beste ezerk baino puntu gehiago eman izan ditu lanpostu publiko bat lortzeko unean". Gezur horren aurrean, lehendakariak, zuzendu beharrean, "egoera hori egokitu egin behar dugu, arrazoizko bihurtu". Ez bakarrik hori: aldatu beharra dago, "puntuak benetan profesionaltasunak eman ditzan". Nonbait, orain arte ez da horrela izan.

Gezurra gezurraren gainean botata, baliteke baten bat despistatzea lortzea. Horregatik, zenbait egia gogora ekarri behar dira. 1) Hemen legez derrigor jakin behar den hizkuntza bakarra gaztelania dela. 2) Funtzionario izateko ezinbestean egiaztatzea behar dela gaztelaniaren jakintza. Aleman batek hizkuntza eskola ofizialean aleman irakasle titular izan gura badu, gaztelaniak dakielako egiaztatzea behar du. 3) Benetan arduratzen baditu euskarak dituen ustezko abantailak lanpostua lortzeko orduan, eman diezaiotela gaztelaniak duen legegimaila bera, ez handiagoa, ezta txikiagoa ere. Eta gizarte elebidunean sinesten badute, izan daitezela eredugarri eurak ere.

Hemen, legez, derrigor jakin behar den hizkuntza bakarra gaztelera da

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko maiatzaren 14a - 9. urtea - 373 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:	
	Abadiño	Elorrio
	Atxondo	Garai
	Berriz	Iurreta
	Durango	Izurtza
		Mallabia
		Mañaria
		Otxandio
		Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

BERBAZ >

“Berdintasunerako borroka da emakumeok batzen gaituena”

Nati Nsik Abadiñoeko emakume etorkinen taldeagaz parte hartu du malariaren inguruko ekitaldietan

Hiru urte daramatza Nati Nsik Euskal Herrian. Ekuatore Gineatik etorri zen bertara, eta Traña-Matienan bizi da. Bertan emakume etorkinen talde bat sortu dute. Medicus Mundik eta Udalak antolatu dituzten malariaren kontrako ekitaldietan parte hartu du emakume taldeak.

Zelan sortu zenuten emakume etorkinen taldea?

Nik Anboto Azpiko Damak elkarte ezagutu nuen, eta asko gustatu zitzaidan egiten zutena. Pentsatu nuen guk ere Abadiñoeko emakumeek egiten dituzten antzeko gauzak egin genitzakeela. Hasieran emakume etorkinak emakumeen elkartean sartzeko animatzea pentsatu nuen, baina emakume batzuei gaitza egiten zitzaian talde horretan integratzea. Gure aldetik elkartzeko hasi ginen. Hasteko, emakume etorkinen errealitatea ezagutzeko galdeketa bat egin genuen, eta apurka-apurka batzen eta taldea egiten joan gara. Orain hamabi bat andre gaude, Afrikako hainbat herrialdeetakoak.

Elkartzeko gune baten beharra sentitzen duzue?

Gure bizimodua aurrera ateratzeko premia dugu, eta hori elkarregaz egitea errazagoa da. Emakumeen taldean integratzeko arazoetako bat hizkuntza zen. Sentimenduak partekatze muga handia da hori. Ez dakitenei gaztelera non ikasi dezaket esan diegu, eta batzuk euskara ikasten ere animatu gara. Formazio oso garrantzitsua da niretzat; aurrera egin gura duten pertsonentzat funtsezkoa da. Formazioa jasota, emakume etorkinak gizonekin edo lagunekin daukaten menpekotasuna galtzen dabilta. Badakit gaitza dela, baina emakume afrikarrentzat garrantzitsua da guk bakarrik aurrera egin ahal izatea, gizonen laguntza barik. Ez afrikarrentzat bakarrik; edozein emakume etorkinentzat dauzkagu ateak zabalik. Heldu berri diren emakumeei harre-ra egin gura diegu, hemen etxean moduan sentitu daitezen.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna da orduan zuen helburuetako bat. Hemengo gizarte berdintasun arloan lan egiten dabilenez, aukera hau aprobetxatu gura dugu guk ere, berdintasuna aldarrikatzeko. Europar bizi garenez, Europako emakumeen antzera bizitzen ahalegindu behar dugu. Eurek lortu dutena ikusteak indarra ematen digu berdintasunaren alde lan egiteko.



“Berdintasun arloan hemen lortutakoak etorkinoi lanerako indarra ematen digu”

Nabarmendu gura dut Abadiñoeko Udalak eta herriko emakumeen taldeak asko lagundu digutela. Oso ondo hartu gaituzte, eta euren babesa guretzat oso garrantzitsua da.

Herrian hainbat ekitaldi egin dituzue. Dauzkagun trebetasunak besoak zabalik hartu gaituen herriari erakusten ahalegindu gara. Adibidez, azaroaren 25ean, emakume elkar-teagaz batera manifestazioan izan

“Herrialde guztiek egin beharko lukete lan malariaren arazoa konpontzeko”

ginen, eta dantzan eta kantuan parte hartu genuen. Emakume afrikarroi asko gustatzen zaigu erritmoa; barruan daukaguna adierazteko modua da. Martxoaren 8an ere parte hartu genuen ekintzetan. Egun hartan ileapaindegia jarri genuen frontoian; dantza egin genuen, kalejiran... Etorkinen kolektiboan emakume musulmanei kostatzen zaie gehien parte hartzea, eta Martxoaren 8an animatu ziren; badabilta,

Nati Nsi • Erizaina

- Ekuatore Gineakoa da
- Abadiñoeko emakume etorkinen taldeko kidea

apurka-apurka. Emakumeak batzen gaituen zeozer badago berdintasunerako borroka da. Gizonek ere parte hartu zuten, eta oso ondo egon zen.

Zelan ikusten dute gizon afrikarrek zuen taldea?

Batzuek ondo, eta euren andreak animatzen dituzte. Beste batzuei gehiago kostatzen zaie. Familian ez dituzte betebeharrak partekatzen, eta batzarrak ditugunean eurak seme-alabekin geratzea ez da oraindik eurentzako normalena.

Malariaren inguruko astean parte hartu duzue orain Medicus Mundigaz.

Bai, Udaletik parte hartzeko esan zigutenean segituan onartu genuen. Afrikako gaitzik garrantzitsua da, eta haren kontra lan egiten dabilen talde bat dagoela jakiteak hunkitu egiten gaitu. Garrantzitsua da jendea malaria zelakoa den azaltzea, eta horren kontra egiten dabilzan lanen berri ematea.

Zelan bizi izan duzue malaria Afrikan?

Nik uste dut afrikar guztiok bizi izan dugula gertutik malaria. Gau eta egun gugaz bizi den eltxoak eragiten du, eta oso gaitza da aurre egitea. Umeei eta emakume haurdunei eragiten die gehien. Gaixotasunak ez dauka tratamendurik, eta egiten diren aurrerapenak ez daude herri-tarren esku; garestiegiak dira. Horretan lan egiten duen talde bat dagoela jakiteak, behintzat, itxaropen izpi bat ematen digu. Herrialde guztiek egin behar dute lan arazoa konpontzeko eta tratamenduak merkatzeko. Malariaren oinarrian, azken finean, pobrezia dago; higie-ne faltagaz eta hezetasunagaz eroso sentitzen da eltxoa. Gaitza da aurre egitea, baina ez ezinezkoa. ■ A.U.

EKONOMIA[>]

> DURANGO

Durango txartela' ekimenaren balantzea egin du + Dendak elkarrekin, eta oso pozik agertu dira emaitzekin. 'Durango txartela' azaroan hasi zen funtzionatzen, eta dagoeneko 800 dira erabiltzen duten kontsumitzaileak, +Dendak elkarrekin azaldu duenez: "Genituen prebizioak gaitzitu ditu". Txartelaren erabilerak bost hilabetean komertzioan 200.000 euro fakturaztea ahalbidetu du.

Elkarteko presidente den Guillermo Oarbeaskoak adierazi duenez, "jendeak ulertu du txartela atera eta erabiltzeko abantailak bakarrik dakartzala". Visa estiloko txartela da, eta, erosketak egiteaz gainera, Durangon opariak jasotzeko aukera ematen du. Iniziatibagaz 83 komertzio egin dute bat, eta bertan erosketak egitean puntuak gehitzen joaten da bezeroa. Kontsumitzaileak 200 puntu eskuratzean, 10 euroko balioa duen saria jasoko du. Horrez gainera, Izurtza eta Otxandio Aviaren gasolindegietan %3ko beharpena lortzen da txartelagaz. Bestalde, maiatzean 136 sari banatuko dituzte dendetan, opariekin trukatzeko. ■ M.O./G.A.

800 eroslek badarabilte dagoeneko 'Durango txartela'

+ Denda elkarrekin balantzea egin du eta oso pozik agertu da emaitzekin



Erosleek opariak jasoko dituzte txartela erabiltzearen, ekimenagaz bat egin duten 83 dendetan.

> ABADIÑO

Inyektametal enpresako beharginek "mobilizazioak gogortu dituzte"



Eguenean Inyektametalen Enpresa Komiteak mobilizazioak egin zituen enpresa aurrean hitzarmenaren inguruko akordioak lortzen ez dutelako eta enpresak "mugimendurik egiteko asmorik ez duelako". Diotenez, "erantzun positiborik ez badago, hau lehenengo kontzentrazioa izango da, baina ez azkena".

Sindikatuak ez dute gura kaleratze traumatikorik

Astearteko bileran Komiteak eta EMAko zuzendaritzak ez dute akordioak lortu; bilerekin jarraitzeko asmoa dute

El Material Aislante Abadiño enpresak orain hilabete gutxi gorabehera bideragarritasun plana aurkeztu zuela adierazi dute sindikatuek. Planaren ondorioz, "enpresak 18 behargin kaleratzea planteatu du". Enpresa komitea eta EMA enpresako zuzendaritzak, orduan, hainbat bilera egin dituz-

te, eta astearte honetan ere bildu dira, baina ez dute akordioak lortu. LAB sindikatuko ordezkariak azaldu duenez, "ez dugu kaleratze traumatikorik onartuko", sindikatuek adierazi dute euren kabuz irteera erabakitzen duten beharginak irten direla enpresatik, eta ez kopuru zehatz bat.

EMAk 18 behargin kaleratzeko bideragarritasun plana aurkeztu zuen

Komitea LABeko bi delegatuk eta ELAko zein UGTko banak osatzen dute, eta enpresari planteamendua bideratzeko esfortzua egin dezala eskatzen diote, "jende gehiagok onartu dezan". ■ G.A.

■ kolaborazioa



Aitor Iturriaga
LAB sindikatua

Gu ere greziarrak gara

Nahiz eta badakigun komunikabide nagusiak noren interesen zerbitzura dauden, sarritan berauek bihurtzen dira gure jakintza iturri bakar, kontraste-rik bilatu ezean, eta, tamalez, horren harira egituratzen dugu gure pentsaera eta jarrera gai desberdinen aurrean. Nahiera moldatutako informazioak desinformazioa dakar. Jendarte ezjakin bat sekula ez da askea izango. Krisi honek zerbait agerian utzi baldin badu, zera da: kapital handi eta espekulatuzaileen mugarik gabeko boterea, eta berauekiko gobernuak duten otzantasun eta menpekotasuna. Eskemak, politika zein ekonomiarako, denerako balio du. Desinformazioaren laborategian mamitutako istorioa mila aldiz errepikatuz, egi bilakatu. Hara hor Grezia. Egunotan hamaika aldiz entzun behar izan dugu, alperrontziz osatutako herrialdea omen dela, inoren lepo, bapoz bizi izan den biztanleria iruzurgile batek osatua. Klase politikoari buruzko argazkirik ez. Inbertsiogile handien trikimailuei buruz ere, ezer ez diote. Zorra bueltatzeko ezgaitasunaren inguruko adierazpen soil batzuk nahikoak izan dira. Aitaren batean, bere zorraren zama eta ordaindu beharreko interesak bideratzeko banku eta espekulatuzaile handiek eskuratutako zor publikoa edo mailegatutako dirua, Greziako eta Europako gainontzeko herritar xumeok ordainduko dugu. Arriskurik gabeko inbertsioak txakur handientzat. Gure eskubideak bihurtu dituzte zor horren berme. Jendarteak jakin behar du, gobernuen esanetan, defizita murriztea, gastu soziala doitzea... bezalako adierazpenek eragin zuzena dutela gure bizi-baldintzetan: soldadak eta pentsioak murriztu, zerga gehiago gutxien dutenentzat, hezkuntza eta osasungintza publiko eskas eta garestiago bat, politika sozialen desagertzea...

Lerro hauek idazten ari naizela zapatagileak greziarrak gara eta oroitzen dugu; errezeta berdina dugula zain, alegia. Denon dirua aberatsei oparitzea merkea den bitartean berdindin jarraituko dute gure agintari ustel eta korruptoek.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología 108. L. Kargokidea

KULTURA[>]

ANTZERKIA > EMANALDIA

Ilargira bidaia San Agustin antzokiko oholtzatik

Zorotza aretoan, apirilaren 17an egin zuen Gorakada antzerki taldeak *Jules Verneren azken abentura* izena daukan azken lanaren estreinaldia. Orduetik, besteak beste, Berri-zen eta Elorrioren erakutsi dute Gorakada antzezlan, eta domeka honetan, maiatzaren 16an 18:00etan, Durangoko San Agustinen da hitzordua.

Urtebeteko lanaren ondoren aurkeztu zuten, apirilean, *Jules Verneren azken abentura*, estreinaldiaren aurretik Alex Diaz zuzendari abadiñarrak azaldu zigunez. Verne idazleak sortutako pertsonaiak eta idazle frantzesaren idazmahaitik abiatutako bidaia dira umeentzako antzezlan honen ardatz.

Izaskun Asua, Josu Camara, Ainhoa Alberdi eta Zigor Bilbao dira obrako antzezleak: Asua antzezle elorriarrak idazlearen neskame den Martaren papera egiten du, eta Camarak Julio Verne idazle ezagunarena.

Umeentzako antzerkia egiten, duela 23 urtetik (1987tik) dihardute Gorakadaok, eta hogeigarren ikuskizuna da domekan Durangora ekarriko duten Verner buruzkoa.

Idazten diharduen istorioko azken paragrafoetan ilargian utzi duen protagonistanaino zelan ailegatu pentsatzen abiatzen du bidaia protagonistak, eta irudimena garraibide hartuta ilargirainoko bidean abentura mordoa bizi eta erakutsiko ditu. ■ I.E.



Argazkilaria: T.Angotia

12 Iurretako VII. Literatur Sariketa

Inoiz baino ipuin eta bertso gehiago aurkeztu dituzte aurten Iurretako literatur lehiaketara. Ibarretxe kultur etxean egin zuten sari-banaketa, joan zen bariku eguerdian.



13 Kuntur Lee Ateneoan, gaur

Borja Estankona eta Kuntur Lee-ren emanaldiak daude gaurko programatuta Elorrioko Ateneoan. Kuntur Lee musika taldea, abeslariaren ahotik ezagutu dugu.

LITERATURA > SARIKETA

VII. Literatur Lehiaketaren sariak Ibarretxe kultur etxean

Euren ipuin eta bertsoak lehiaketara aurkeztu dituzten ikasle gazte eta umeak zein helduak batu ziren barikuko sari-banaketa ekitaldian

Ibarretxe kultur etxean egin zuten, joan zen barikuan, Iurretako Literatur Lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia. Udaren eta herriko eskolen elkarlanagaz, ume, gazte eta helduen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko helburuz Herri Bibliotekan antolatzen duten hitzordu horretan sekula baino parte-hartzaile gehiago izan direlako aurten, pozik agertu ziren lehiaketaren antolatzaileak.

Inoiz baino lan gehiago jaso dituzte aurten Herri Bibliotekan

Lehiaketan parte hartu duten herriko ikastetxeetako ikasleak eta helduen sailean saria jaso duten parte-hartzaileak izan dira Ibarretxe kultur etxeko ekitaldian protagonistak nagusi. Helduen saileko lehenengo saria Eñaut Aiarzaguena iurretarrari eman diote, kartzelan idatzitako *Margotu gabe-*



ko kateak lanagatik. Bertso idatzien atalean, bestalde, Justo Alberdik jaso du *Bakearen negarra* sortagatik lehenengo saria.

Umeen sailean 108 lan, 160 gazteenean eta helduen sailean 14 aurkeztu dira aurten. ■ I.E.

Helduen sailean lehenengo saria Eñaut Aiarzaguena rentzat

ESKULTURGINTZA > ERAKUSKETA

'Bariazioak, lokarriak eta grafiak' eskultura-lanak

Maiatzaren 30era arte Durangoko Museon



Mariemi Otaola bilbotarraren eskulturak daude Durangoko Arte eta Historia Museon ikusgai. Maiatzaren 5ean egin zuten inaugurazioaren ondoren zabaldu zuten Museoko erakusketa, eta 30era arte ikusgai izango da Otaolak *Bariazioak, lokarriak eta grafiak* erakusketan jarritakoak.

Mariemi Otaola artista bilbotarraren lanen bilduma ikusgai

Bere ibilbidean zehar landu dituen esparru ugarien adibide eta bere lanaren garapenaren erakusle diren eskulturak bildu ditu Otaola bilbotarrak Museoko bilduma honetan. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz Berbaroko kidea

Ipurdien ederrak

"Ipurdia artelana da" irakurri nuen lehengoan webgune interesgarri batean. Argazkilaria entzutetsuen erretratuak hautatuta, ipurdiei buruzko lauhun orrialdeko bilduma egin du Dian Hanson erotismo aldizkariaren editore ezagunak, ipurdia artelan bihurtu nahian.

Obsesionatuta nabil ipurdiekin. Gorputz atal hori baino ez dut ikusten kalean zehar nabiltzen. Begiak itxi, atzera zabaltu, eta besterik ez dut ikusten praka eta gonak ondo betetako ipurdia baino.

Duela gutxi Durangoko igerileku berriak estreinatuta dira—dituzte—, ekitaldi handiguratsuan eta arrakasta handiz, antza. Igerian egiteko lekua izateaz gain, makina bat jarduerak egin daitezke bertan, gorputz atalak landu eta edertzeko.

Antzina ere, egungo eraikin berritik oso gertu igerilekua genuen: erreka. Ezzen hain elegantea, ez zegoen fitness eremurik, ezta spinbike aretorik ere, baina tira... 'Arripuseta' esaten genion bainuleku kutunari. Txakurren ahausi artean, Muruetatorre ondoko bide-txoa hartu eta harri-pausu izanikoetatik uruherrak zeharkatuta, kanpalekua jartzen genuen belartzan. Lasai asko erakusten genituen landu bako "artelan" guri-zuriak, begirada lizunetatik aske, argazki kameretatik urrun. Pena! Ezin Hansonen liburuan ageri.

Orain, aldiz, errazago dugu katalogo batean agertzea, eskura baititugu baliabide eta aukera ugari: argazkilariak, artistak eta, zer esanik ez, gorputz atalak edertzeko ezinbesteko lantegi publiko zein pribatuak. Ondo hornituta daude gorputz-liraindegi hauek; zerbitzu integralagoa eman lezakete, ordea. Esate baterako, atsedenguneetan edo saunan liburuak ipiniko balituzte... eta haurtzaindegia, orduan funtzio guztiak beteko lituzkete: igerileku-kiroldegi-liburutegi-ludoteka-haurtzaindegi.

Tira, hau dena jarriko dutelakoan, argazki kamera hartu, eseri eta ipurdien ederrak artelan bihurtzeko saioan hasiko naiz.

ANTZERKIA >

Igorreko taldeak irabazi du aurten 'Zugan ni'

Joan zen barikuan, Igorreko Lasarte aretoan egin zuten 'Zugan ni' gazteen antzerki lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia. Jaialdia antolatzen duen Markeliñe Antzerki taldeak jakinarazi duenez, "bere lanaren harmoniagatik" irabazi du Igorreko taldeak lehenengo saria.

Gazteak antzerkira eta sormenera gerturatzea helburu duen lehiaketaren bigarren saria, bestetik, Zornotzako Zelaieta zentrokoek jaso zuten *Tb show* antzezlanagatik. ■ I.E.

Txintxaun-en maitasunari buruzko lana

Umorea eta maitasuna uztartzen dituzten sei eszena dira Txintxaun antzerki taldeko kideek, maiatzaren 21ean, Berrizko kultur etxeko emanaldian oholtzaratuko dituztenak.

Umorea eta maitasun koardoa izeneko da obra. Jose Luis Alonso de Santos egileak sortutako Benita eta Pako protagonisten bizipenak abiapuntu hartuta eta Rosa Martinez-Alcocerren zuzendaritzapean landutako antzezlanean dozena bat antzezleek jardungo dute. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MAIATZAK 14 22:00etan
POSITIVA + PORCO BRAVO
KONTZERTUA. Sarrera: 7euro.

MAIATZAK 21 22:00etan
HAUXE DA PARADERU
TRAMAN & BRIXRKI TALDEA
ANTZERKIA. Sarrera: 3euro.

MAIATZAK 22 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA 2010
AIKO TALDEA
ERROMERIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LA LENGUA DE LAS MARIPOSAS
Katu Beltz
Maiatzak 15 • 20:00etan


JULES VERNEREN AZKEN ABENTURAK
Gorakada Antzerki Taldea
Maiatzak 18:00 • 18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburudenda

11-94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

autoak 2010



anboto



SPORT DURANGO, S.L.

ZERBITZU OFIZIALA:



Fabrikako



modelo
guztietan

TAILERRA - MEKANIKA - TXAPA - PINTURA - ERAKUSKETA

Murueta z/g (Hiper Eroskiren aurrean) Matiena - Abadiño
Tel.: 94 620 33 92 - 94 681 76 44



Egin aseguruua kotxeari eta ziurtatu lasaitasuna

Garrantzitsua da autoari egoki dagokion aseguru mota kontratatzea

Komeni da erosi dugun autoari eskaini diogun denbora eta arreta bera eskaintzea aseguruua kontratatzerako orduan ere. Hainbat aukera daude, eta garrantzitsua da bakoitzaren ezaugarrien arabera aseguruua hartzea. Autoa berria denean, ohikoena arrisku orotako poliza kontratatzea da; areago urte batzuetarako finantziarioa eskatu denean, istripua izan, autoa txikituta geratu eta denbora batean ordaintzen jarraitu behar izateko arriskua dago-eta.

Europako herrialde batzuetan kontua bestelakoa da; Alemanian eta Herbehereetan, esaterako. Autoa sarriagotan aldatzeko joera dutenez, erantzukizun zibileko

aseguruua hartu ohi dute. Hemen ahal dugun denborarik luzeenean eusten diogu autoari.

Euskal Herrian lau-bost urte joanda erabakitzen dugu arrisku orotako asegurutik erantzukizun zibilekora aldatzea. Dena dela, erabakia hartu aurretik ondo aztertu ordaintzen duzuna. Azken aspaldian, hobariak jaitsi egin dira, eta aseguru mota bien artean alde handirik ez egotea suertatu daiteke; esaterako, 100 edo 200 euroko aldea badago, batek baino gehiagok aldaketak ez diola merezi pentsatu dezake.

Gaur egun, erantzukizun zibileko aseguruua hartzerakoan, osagarri batzuekin hartu ohi da.

Lehenengo urteetan arrisku orotako poliza hartzeko joera izaten dugu

Erantzukizun zibilekora pasatzean, komeni da aseguruua osagarriekin osatzea

Normalena beirak, sutea eta lapurretak aurreikusten dituen osagarriak gehitzen dira.

Istripu bat daukazunean
Toki guztietara autoz joateko ohitura dugunez, nork ez du noiz edo noiz kolperen bat eduki? Erruduna nor den argi dagoenean, adiskidetasunezko istripu-aitorpena bete daiteke. Alde biek ematen dute partea eta ez istripuaren errudun denak bakarrik. Dena dela, dudarik baldin badago Ertzaintzari edo Udaltzaingoari deitu dakieke. Aseguru konpainiek ertzainen informea irakurri eta aseguratuaren deklarazioa entzunda erabakiko dute zer egin.

A&L

AZPIRI LEJARDI

Correduría de Seguros S.L.

Aut. D.G.S.: J-1624

azpirilejardi@azpirilejardi.com - www.azpirilejardi.com

Tel / Faxe: 94 682 49 37 / 94 682 46 19
Geltoki, 11 behea 48240 BERRIZ

Tel / Faxe: 94 621 58 59 / 94 621 59 27
Matxinestarta, 22 48200 DURANGO



MAPFRE
Agreda y Otxoa, S.L.

Matxinestarta kalea, 14 behea
48200 DURANGO/Bizkaia
Tel.: 94 620 11 69

Ohiko galderei erantzunez

Aseguru batzuk frankiziekin kontratatzen dira. Zer esan gura du horrek?

Istripu bat izan eta errua zurea bada, frankiziak zehazten du norberak aurreratu behar duen diru kopurua. Demagun kolpeak 1.000 euroko kostua duela; 300 euroko frankizia izanez gero, kostuaren lehenengo 300 euroak norberak ipini behar ditu, eta gainerakoa aseguruak.

Aseguru batetik bestera joateak gestio handia eskatzen du. Zelan arindu daitezke gestioak?

Gestio handia eskatzen zuen, baina orain bost urte SINCO fitxategia sortu zutenetik errazagoa da. Hasieran konpainia batzuk mesfidati agertu ziren, baina gaur egun ia guztiak erabiltzen dute. Aseguru konpainiek fitxategi horretan sartzen dituzte bezeroen datuak; beti ere, hirugarrenei egindako kalteenak. Beraz, aseguru berri bat egiterakoan, NAN eta poliza zenbakia ematea nahikoa da; gainerako informazioa fitxategiak emanago du. Datu horiek azken bost urteetako informazioa ematen dute. Lehenago hainbat dokumentu eskatzen zituzten; gaur egun, asko erraztu eta sinplifikatu da.

Auto berria erosi dut. Asegurua kontratatzerakoan zer hartu behar da kontutan?

Gehienak autoa erosi eta gero hasten dira seguru egokienaren bila. Baina komenigarria da autoa

erosi aurretik dauden aukerak aztertzea, gero sorpresa txarrik ez izateko. Aseguru konpainiek ezaguri nagusi bi hartzen dituzte kontutan aseguru egin orduan: adina eta gidabaimena atera zenetik pasatutako denbora. SINCO bakoitzaren historia-lasotzen du, eta karneta atera berriei garestiagoko ateratzen zaie aseguruak. Azken datu honetan adinak ez du zerikusirik, esperientziak baino: 40 urte izanagatik karneta atera berri baduzu aseguru garestiagoa izango da normalean.

Esaten dute auto gorrien eta beltzen aseguru garestiagoa dela. Egia da?

Lehen bai. Sasoi batean gorria bezalako kolore biziak gidariaren izaerarekin lotzen zituzten. Gaur egun, ordea, ia ez dago aseguru egin orduan kolorea aldagai legez hartzen duen aseguru konpainiarik.

Emakumeen aseguruak merkeagoak dira?

Bai. Estatistika kontua da. Gizonek kolpe gehiago eta bortitzagoak izaten dituzte. Adinean aurrera egin ahala prezioek parekatzera egiten dute apurka, baina gaztetan aldea handia izan daiteke.

Herri batzuetan aseguruak merkeagoak dira?

Hemen ere estatistika nagusi. Durangon Zaldibarren baino garestiagoa da; eta Bizkaian Gipuzkoan eta Errioxan baino garestiagoa.



Furgonetak modan daude



Gaur egun, geroago eta furgoneta gehiago ikusten da kalean. Izan ere, etxe txiki bat atondu ohi dugu furgoneta barruan. Oso funtzionalak dira, eta bidaiari mota batzuk asko errazten dituzte; eta zer esanik tartean seme-alabak badaude.

Aseguru konpainiek mota horretako aseguruaren eskatzaileen igoera nabaritu dute. Hemen argibide bat eman beharra dago; aseguru egin orduan, alde bate-tik, furgonetaren beraren aseguru egin daiteke eta, bestetik, baita barruko elektrogailuena ere.

BILBAO ASEGURUAK

ETXEKO ASEGURUA KONTRATATZEAGATIK

4 litroko presio-eltze hau **opari** zuretzat



2010eko maiatzaren 1etik uztailaren 31ra

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango • Tel.: 94 620 27 10

AMAYA AUTOEN KONPONKETAK S.L.



TEL.: 946 812 123 FAXA: 946 203 818

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozqueta errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia 126 Posta Kutxa Durango

e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com

www.amayaautoreparaciones.com



Oso gutxi kostatzen da zure
Renault-aren segurtasuna mantentzea

FRANKIZIA DOHAINIK

EDOZEIN KARROZERIA KONPONKETETAN

Frankizia oparitzen dizugu karrozeria konponketetan, zure aseguru konpainiak aplikatutako ezbehar jakinarazpen bakoitzagaitik 300€ gehienez eta gubkienez 1200€ fakturatzen badira bez-a sartu gabe. 10/07/31-ra arte baliodun eskaintza.

74,5€^{-TIK}

PNEUMATIKO CONTINENTAL BAT*

ERREFERENTZIA	IC/IV IZENDAPENA	PSP PNEUMATIKO BAT
185/60R15	CONTINENTAL PREMIUM CONTACT2	74,5€
205/55R16	CONTINENTAL PREMIUM CONTACT2	84,5€
205/60R16	CONTINENTAL PREMIUM CONTACT2	99,5€

MUNTAIA ETA OREKATZEA DOHAINIK

GAINERA %50 BESTE MARKA BATEKO BIGARREN PNEUMATIKOAN **



*Izakinen amaiera arte baliozko eskaintza. Beste promozioekin bateraezina.

**10/12/31-ra arte baliodun eskaintza, Dunlop, Continental, Goodyear, Pirelli eta Bridgestone pneumatikoetan

www.renaultservicios.es

RENAULT SERVICIOS

ZURE RENAULT-AREN MAILAN
RENAULT BAKARRIK DAGO



GAURSA ARRIANDI 12. IURRETA. TEL. 94 620 33 00

Zuk zeuk konpondu dezakezu



ibilgailuen multzoa % 50era ez zen heltzen, eta orain % 60-70ekoa da. Jendeak geroago eta gutxiago aldatzen du kotxea, eta geroago eta gehiago eramaten du konpontzera.

'Repara tu vehículo'-n espazioa alokatu egiten dute. Beste tailerren osagarria dela diote

Autoa norberak konpontzeko aukera eskaintzen duen tailerra zabaldu dute lurretan. 'Repara tu vehículo' izena jarri dioten zerbitzuan, kotxea gertu izateko behar ditugun tresnez gainera, mekaniko batek argibideak ematen ditu. Gaizka Mugerza ekimenaren bultzatzaileak azaldu duenez, "ideia kanpotik dator". Asmatuta dagoena hartu eta hobetu egin dute. Alemanian eta beste herrialde batzuetan halako tailerrak aspalditik dabilta martxan. Tailer tradizional eta kontzesionarioen zerbitzu osagarri bat da. Madrilen mota horretako tailer handi bat

dago, eta proiektu hori lurretara ekarri dute. Tailer profesionala da. Mota guztietako erremintak eta garbigailuak dituzte. Mugerzaren berbetan, "gure tailerra besteen zerbitzura jartzen dugu". Espazioa edo tailerra alokatu egiten dute. Tailer bakoitzak sei box dauzka. Elebadore bat, erreminta-kaxa osoa eta mota guztietako osagarriak.

Mekanika kontuak gustuko dituen jende asko dagoela diote 'Repara tu vehículo'-koek, baina ez daukatela konponketetarako leku egokirik. Bezeroak aholkua eskatzen joaten zaizkiela ere azal-

du dute. Proiektu hau nobedadea da gure inguruan. "Guk erraztasunak jartzen ditugu. Tailerrak sozializatu egiten ditugu", diote. Mekanikoe txanda bitan beharra egiten dute bezeroei laguntzeko. Ordutegi zabala dute; egun osoan eta astelehentik domekara zabalik dago.


Ordaintzerakoan espazioa alokatu egiten du bezeroak: 9 euro, ordu erdi. Produktua aparte ordaindu behar da.

Kotxeen salmentak bajatu egin dira, eta mekanikoe joera hori igarri egin dute. Automobil-parkean orain bi urte sei urtetik gorako

Eskaintzen duten zerbitzua osagarria dela diote enpresako ordezkariak. "Ez gara tailer tradizional baten kompetentzia". Konponketa denak egin daitezke, baina orokorrean bezeroek errazten egiten dituzte. Filtro aldaketak, disko-balazta aldaketak eta antzekoak.

Mekanika gaietan hain trebeak ez direnendako ikastaroak ere eskaintzen dituzte. Prezioa 10 euro da.





Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Aste osoan zehar (astelehenetik igandera 09:30etik 21:30era)

24€ <small>-tik aurrera</small>	29€ <small>-tik aurrera</small>
Olio eta filtro aldaketa	Garbitu tapizeria
13€ <small>-tik aurrera</small>	44€ <small>-tik aurrera</small>
Pneumatiko aldaketa (pneumatikoak ez daude prezioan)	Bidaiaru-lekuko eta erregaiaren airearen filtro aldaketa

Eskaintzako zerbitzu guztiak gauzatzeko 3 o. 15 min. an baxi baxi alokatzea. Gull 10w. 40 olio erabiltzea. Manu larramutik sinbilitza eta RTV osagaririk erabiltzea derrigorra da prezio horiek balaitzeko. Begiratu beste prezio batzuk.



Bidaiatzeko gertu

Erruberen presioa autoan daramagun pisuaren arabera moldatzea gomendatzen dute adituek

Larrialdi-hirukiak eta txaleko islatzaileak euren lekuan daudela ziurtatu behar dugu atera orduko

Eguneroko joan-etorrietarako ere puntuan edukitzea komeni da autoa, baina ohikoa baino denbora luzeagoz gidatu behar dugunean, batez ere, premiazko da ibilgailuari aurretik errepasso oso bat egitea; olioaren maila, olioaren eta airegirotuaren iragazkiak, bujiak, abiadura-kaxaren olio, bateria, frenoaren likidoa zein likido hoztailea, uhalak, pneumatikoen presioa eta oreka, eta argiteria berrikustea komeni da bidaia abiatu orduko.

Tailerrean autoa berrikustea izan liteke behar bada erosoena, eta mekarikariek gomendatzen dituztenaren arabera aldaketak egitea.

Joan-etorri luzeetan, istripua izateko arriskua ere gehitzen delako, arreta bereziagaz gidatzea besteko inportantea da

abiaturretik autoa baldintza onenetan dagoela ziurtatzea. Gidaria egoera fisiko aproposan egotea besteko garrantzitsua da ibilgailua ere bere onenean egotea.

Argiteria, larrialdietarako hirukiak zein txaleko islatzaileak behar duten moduan daudela frogatzea komeni da, bidea egiten hasi

aurretik, eta, zelan ez, baita segurtasun uhalak behar den

bezala dabiltzala. Bestalde, segurtasunean daukan eragin nabarmenari begiratuta, pneumatikoen presioa eta marrakia konprobatzea ezinbestekoa da bidaiari ekiteko: autoak daraman pisuaren arabera presioa behar lukete izan gurpilek. Bidaiatzerakoan, egunerokoa baino pisu handiagoa eraman ohi dugunez, argiak



posizio berrira orekatzea komeni da. Zorte apur batez gertatu ez badu ere, badago bidaiari zulaketaren bat gertatzeko aukera ere, eta, horregatik, maletategian daramagun ordezko gurpila ere behar den moduan dagoela konprobatzea ez dago soberan.



neumaticos ETXEBARRIA

Firestone
BRIDGESTONE
MICHELIN
BFGoodrich

Urbite, 6 Matiena
(Hiper Eroski aurrean)
Tel.: 94 623 25 20

pneumatiko marka guztiak!



Kotxe elektrikoak

ABANTAILAK:

- Ez dute hots-kutsadurarik eragiten
- Ez dute emisiorik eragiten erabiltzeko lekuan
- Berehalako erantzun egokiagoa, ibilgailu konbentzionalen aldean
- Galera mekaniko txikiagoak, energia errendimendu handiagoa
- Mantentze-kostu txikiagoa
- Balaztatzeko energia berreskuratzeko aukera
- Kilometroko kostu txikiagoa

DESABANTAILAK:


- Irispide mugatua
- Kargatzeko denbora luzea
- Hasierako kostu handia, baterien kostu handiaren ondorioz
- Baterien mugak (kostua, bizitza erabilgarria, energia-dentsitatea...)
- Berriz kargatzeko azpiegitura



Gidatzean ekologia zaindu

Gidatzerakoan energia eta dirua ere aurreztu daiteke. Gidatzeko modua da gakoa. Kotxean lehen martxa abian ipintzeko bakarrik erabili eta bigarren martxara ahal bait arinen aldatu. Biraketa gutxigaz eta ahal diren martxarik luzeenak erabiliz gidatu behar da. Abiadura uniformeaz gidatzen saiatu. Izan ere, horrela energia eta erregaia aurrezteaz gainera, frenoen pastilak ere gutxiago gastatzen dira. Geldialdia minutu batetik gorakoa izango dela aurreikusten baduzu, motorra itzaltzea komeni da, CO2 emisioen isurketa murrizten dugulako, eta erregaia ere bai.

Autoa azeleratzerakoan, martxa aldatu 2.000 eta 2.500 biraketa artean gasolina motorretan eta 1.500 eta 2.000 biraketetan diesel motorretan. Biraketa horietatik gora erregai kontsumoa igotzen da, baina 3.000



biraketatik gora martxa aldaketa egitea ez da batere gomendagarria, kontsumoa zeharo igotzen baita, eta energia eta erregai asko gastatzen da. Bestalde, abiadura moteltzean martxa

ahalik eta beranduen aldatu edo murriztu, martxa azeleragalutik oina altxatuz eta balazta pedalekin egin beharreko zuzenketa txikiak eginez. Gogoratu behar da azeleragailua zapaltzen ez denean martxa sartuta dagoela, eta abiadura 20 kilometro ordutik gorakoa bada kotxeak ez du ia energiarik kontsumitzen. Astiro goazenean ere martxa luzeena erabiltzea komeni da.

Gidatzerakoan hainbat ezaugarri izan behar ditugu kontutan, erregai kontsumoa asko aurreztu daiteke-eta. Energiaren Euskal Erakundearen datuen arabera, leihoak erabat bajatuta gidatzeak %5ean igotzen du erregai kontsumoa, aire girotua erabiltzean, berriz, %25 handitzen da kontsumoa. Erregai kontsumoa aire girotua erabiltzean handitzen da gehien.

Bestalde, kotxearen parrilla beteta egoteak kontsumoa %35era igo dezake. Kotxean 100 kilogramotako pisu gehigarriak %5 igotzen du kontsumoa. Pneumatikoetan 0,3 bareko presio gutxiago izateak ere eragiten du kontsumoan, %3 igotzen baita.

Horrez gainera, kotxea erosterakoan norberaren premien araberako modeloa aukeratu eta kontsumoaren etiketari eta CO2aren igorpenei erreparatzea komeni da. Ezaugarri berberak dituzten kotxeen artean, a edo b klaseko energia etiketa dutenak merkeagoak eta ekologikoagoak izaten dira.

Bioerregaia, biodiesela, bioetanola... Ekoizleak ematen dituen gehienezko nahasketari buruzko gomendioak jarraitzea ere garrantzitsua da.



ERREGAIA EROSKETA SASKIAREKIN

aurreztu

Lortu egizu %10eko deskontua gure gasolindegian 50€-tik gorako erosketagatik

-%10
erregaitan

HIPER**SIMPLY**



Montorreta poligonoa, 1 ST, TS-3. Elorriora bidean **Durango**

"Astebeteko epean azterketa teorikoa ateratzen irakasten dugu"

Elorrioko Solozabal autoeskolan behar egiten du Aitor Balier iurretarrak, eta bere esperientziari buruz galdetu diogu

Autoeskolako iraskalea dugu Aitor Balier iurretarra. Kopilotoaren eserlekuan jesarri eta ikasleei gidatzen irakasten die.

Noiz ekin zenion autoeskolako lanari?

Nire aitak autoeskola zeukan, eta 1991n hasi nintzen lanean.

Urteotan aldaketarik nabaritu duzu?

Denetarik egon da urte hauetan. Lehenago ikasleek jakintza batzuk zituzten, baina gaur egun ikasleak ez datoz kotxean ibilita, eta horiei gehiago kostatzen zaie ikas-

tea. Lehenago beldur gutxiago zegoen. Trafikoa ere ez zen hain konplexua.

Zelakoak izan ziren laneko lehenengo egunak?

Beharrea hasi nintzenean gauean ametsetan egiten nuen, ikaslea ez zebilela ondo. Gero egin egiten zara. Kotxea beti daukat menpe, edozein egoeratan.

Kopiloto zoazenean berdin jokatzeko duzu?

Hankagaz jokoa egiten nuen lehenago, eta inoiz albokoari bolantea ere heldu diot.

Azterketak zelan?

Asteko egun txarrena da. Ni neu ere aztertzen naute. Jesarrita noa, aldamenean ikaslea eta aztertzailea atzean. Nondik joan esaten dabilenean barrutik esaten dut, "indikatu, frenatu...", eta isilik egon behar dut.

Azterketa gainditzen duenak badaki gidatzen?

Badaude batzuk zortez gainditzen dutenak, baina besteek badakite gidatzen. Torpetxo, baina kotxe berri batera moldatu behar dira. Nigaz doazenean aldamenean noa, eta edozer suertatzen bada aterako dut.

Karneta aterata, zer egin behar dute?

Leku ezagunetan ibiltzea komeni dela, menperatzen ditugun lekuetan, esaten diet ikasle atera berriei. Kotxea hartu eta kilometroak egin behar dira.

Teorikoa ateratzeko ikastaro trinkoak eskaintzen dituzue.

Bost egun segidan dira; bitartean asteburua badago ere bai. Gogorrak dira, eta asistentzia derrigorrezkoa da. Irakasle bat edo bi ikasle batez egoten dira. Pantaila taktik bat dauka bakoitzak. Programak prestatuta ditugu, eta berak aurkitzen ditu ikaslearen akatsak.

Termometro bat dauka, eta berde-berde heltzen denean prest dago azterketarako. Ikasleen %99k aprobatazen du. Ordenagailuan hasi aurretik irakasle batek teorikoa azaltzen du. Oso intentsiboa da, baina astebetean aprobata daiteke. Kanpoko jendea ere etortzen da.

Tarte horretan kontzeptuak barneratu daitezke?

Norberaren arabera da hori; urteekin gauzak ahaztu egiten dira. Test guztiak Interneten daude DGT-ko orrialdean, eta beti begiratu daitezke. Astebetean hain intentsiboa denez, gauzak oso fresko dituzu azterketarako, eta gero ahaztu egiten dira. Bakoitzak formazioa erreperatu behar du.


Udan jende gehiago apuntatzen da?

Lehenago udan, uztailean, ikasle guztiak agertzen ziren, eta orduan atera behar zuten. Orain, ikasleak ikasketak amaitzen ditu eta oportetean doa. Irailean lan gehiago izaten dugu orain.

Zer behar da gidatzen irakasteko?

Pazientzia, psikologia apur bat... Ikasle bakoitza desberdina da, eta zelan tratatu ikusi behar duzu. Orduak pasatu ahala konfiantza hartzen duzu, eta badakizu akatsak non egiten dituen. Hartu-eman polita izaten da. Orain 18 urteko ikasleekin berba egiten dut. Lan hau oso betegarria da. Ikusten duzu ezerezetik ikaslea zelan formatzen doan, makina menperatzen, trafikoa sartzen... eta azkenean karneta ateratzen du. Zure lanaren fruitua ikusten duzu.





- **TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen dutelarik.
- **CAP ikastaroak profesionalentzat**
- **Teoriko orokorra euskaraz ONLINE**

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Hainbat musika taldetan jardun eta gero, zelan sortu da Kuntur Lee proiektua?

Hasierako taldeetan rock & rolla egiten genuen, taldekideek bata bestearen hutsuneak osatuz. Bost lagun elkartu eta koordinatzea gaitza egiten zitzaigun askotan, eta horrela hasi ginen doinu apur bat akustikoagoak sortzen. Dirtyes taldea utzi genuenean sartu zitzaidan gitarrari jotzen hasteko grina hori niri.

Zer talde dira hasieran sortu zenituzten horiek?

Hamabost urtegez Mush izeneko taldeagaz hasi ginen, eta gero etorri zen Dirtyes. Dirtyes utzi genuenean, orain sei urte inguru hasi nintzen kantak sortu eta taldekideen laguntzagaz gitarra jotzen ikasi guran.

Azkenaldian hainbat izenagaz jardun duzu...

Bai. Hasiera batean Condor de Oriente izena geneukan: izen hori ipini genion garai hartan lankide boliviar batzuk genituelako, eta beti esaten zigutela Andeetara 'Condor de Oriente' ikustera joan behar genuela: eurentzat hegazki sakratua, eta euren musika eta kulturaren zeinu inportantea da 'Condor de Oriente' delakoa.

Condor, Kuntur... eta Kuntur Lee izenagaz zatoz orain?

Lankideek gomendatu legez, bidaia egin genuen orain hiru urte Hegoameriketara: Bolivia, Kolonia, Argentina eta Kubara. Peru Magdalena lagun onagaz egin nuen bidaia hura, eta elkarregaz kanta asko egin genituen. Han ume askok Kuntur izena dute (condor, quechueraz). Horregatik Kuntur.

Eta orain Lee ere bai...

Taldekideen joan-etorri handia izan dugu beti. Orain Tximis baxu-jotzailea, Lier kaxa flamenkoagaz eta neu ibiltzen

Gitarra, kaxa flamenkoa eta baxua, kanta soil baina sakonak egiteko

'Ande eta HeMendietatik' bigarren diskoan bildutakoak eta kanta berriak eskainiko dituzte gaur Elorrioko Ateneoan duten kontzertuan Gotzan abeslari eta gitarristak eta Kuntur Lee proiektuan laguntzen dioten Lier eta Tximisek. Abeslariagaz egin dugu berba



Gotzan abeslaria, eta Kuntur Lee taldean kaxoi flamenkoagaz laguntzen duen Lier taldekidea. I.E.

Zelakoak dira sortu dituzun azken abesti horiek?

Sinpleak, baina aldi berean sakonak ere bai: inspirazio propioak. Gitarra akustikoa da abestien oinarria, eta kaxa flamenkoak eta baxuak osatzen dituzte.

Musikak eta letrak bidaiaren ideia dakarte.

Bai, eta letrak hiru hizkuntzatan egoteak ere hori erakusten du: Atahualpa Yupankiri dedikatutako kanta dago, esaterako, ezagututako lur haietako historia asko dutelako kanteak ere. Bidaiak aukera oso egokia dira konposatzeko: denboraren edo bestelako arduren loturarik barik bizi zarelako.

Euskaraz, gaztelera eta ingelesez sortzen ditu letrak
Gotzan abeslariak

Sermond's-egaz egiten duzunak eta Kuntur Lee legez egiten duzunak ez du zerikusirik handirik... Musika mota bietan jarduten duzu gustura?

Alderdi folkiagoa eta punk-rocka izan ditut beti gustuko: biak uztartzea, instintua jarraitu eta esperimintatzea. Biek betetzen naute asko, hori bai, sorkuntzan parte hartzen dudanean gozaten dut gehien, nik bertsiarik ez dakit jotzen.

Gaurgauean zer eskainiko diezu zu entzutera doazenei?

Diskoetan jasotakoak eta oraindik sekula jo bako lau abesti ere eskainiko ditugu: Belfasten idatzitako azkena ere bai. ■ I.E.

gara, eta horregatik izenari beste ukitu bat ematea. Orain urte eta erditik gabiltza elkarregaz.

Eta Peru Magdalenagaz elkarlana zelan zertu zen?

Elkarregaz egin genuen orain hiru urte Hegoameriketara bidaia, eta elkarri asko lagundu genion letrak-eta sortzen. Berba asko eginda, Peruk idazteko ideiak hartzen zituen, eta konposatzeko ideiak nik. *Lxilik* abestia da, adibidez, hango sorkuntzek duten ukitu andino horren


“Abesti sinpleak dira egiten ditugunak, baina aldi berean oso sakonak ere bai”

adibide; Hegoameriketako abestien eta folk zein country doinuen uztarketa ere badira.

Grabatuta dituzue kantok?

Kuban grabatu genuen hama bost kantako diskoa. Horrez gainera, hara joan aurretik hemen grabatutako beste disko bat ere badaukagu: folk-rock eta folk-country doinuak biltzen dituzte hamabi kanta horiek. Orain, oraindiko grabatu barik ditugun beste zortzi kanta diskoan batzeko asmoz gabiltza.

“Dirtyes utzi genuenean, duela sei urte, hasi ginen proiektu honegaz”




San Mames zelaian!

Zozketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 27a izango da. Irabazlearen izena, 28an, eguerdiko 12:30ean jakinaraziko da webgunean eta anboto irratian


Zozketan parte hartzeko sar zaitetz:

www.anboto.org
webgunean

Lor itzazu dohainik AC/DC ikusteko sarrera bi Rock Izar Eskola eta Anbotoren eskutik



Alluitz, 3 behea Durango
Tel.: 94 603 27 50
www.rockizarra.com



AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 14an, 22:00etan
RUPER ORDORIKA

Ruper Ordorikaren azken lana den 'Haizea Garizumakoa' zuzenean entzuteko aukera dugu Abadiño probalekuan. Ordorikak sentimenduz betetako abesti berriak dakarzkigu; besteak beste, adiskidetasunaren maitasunaren eta ingurumenaren inguruan hausnartzeko aukera, bere abesteko era paregabeaz.

ANTZERKIA

ABADIÑO

» 'Akaziaren jokoa' maiatzaren 15ean, 20:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO

» 'La lengua de las mariposas' maiatzaren 15ean, 20:00etan, San Agustinen.
» 'Jules Vernere azken abentura' haur antzerkia, maiatzaren 16an, San Agustinen, 18:00etan.

ERMUA

» 'Off-On' antzerki musikala, Yolanda Arrieta eta Juantxo Zeberioaren eskutik, 22:15ean. Lobiano kulturgunean.

'Argotu'

haurrentzako kale antzerkia, 18:00etan
De bote en boteren eskutik, hilaren 15ean, Orbe Kardenalaren plazan.



ZORNOTZA

» 'Cocidito Madrileño II' maiatzaren 14an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

BERBALDIK

ABADIÑO

» 'Malariai buruzko hitzaldia' maiatzaren 18an, 19:00etan, Errota kultur etxean.

ELORRIO

» 'Nikaraguako esperientziaren berri emango du' Ima Escribano Kainaberako kideak, eta "garapen bidean dauden herrialdeak" eta "herrialde txirotuak" kontzeptuen inguruko hausnarketa egiteko aukera eskaini, Iturri kultur etxean, maiatzaren 20an, 19:30ean.

IURRETA

» 'Komunitatean bizi gara' hitzaldia, maiatzaren 20an, 18:30ean, Anderebidek antolatuta Ibarretxe kultur etxean.

MAÑARIA

» 'Azaleko minbizia eta eguzkitik zelan babestu' maiatzaren 20an, 18:00etan, Udaletxeko batzar aretoan.

BERTSOAK

ERMUA

» 'Bertsotxo emanaldia', Julio Soto, Sustrai Colina eta Amaia Agirre. Maiatzaren 16an, 19:30ean, Orbe Kardenalaren plazan.



BESTEAK

BERRIZ

» 'Kiki, Koko eta Moko pailazoek 'Txintxilintxin, bakea egin' izeneko lana ikusgai maiatzaren 14an, 17:30ean, Olakueta plazan.

» Berrizko Udalak **persona nagusientzat Leioako Txakolinaren museora irteera** antolatu du maiatzaren 20rako. Doakoa da eta Jubilatuen Etxean izena eman beharko dute joateko interesa dutenek. Autobusa arratsaldeko 15:00etan BBK aurreko geltokian.

DURANGO

» 'Senderismoa nagusientzat'. Nerbioi ibaiaren iturburura, maiatzaren 25 eta 26an. Izen-ematea maiatzaren 17a baino lehen, telefono hauetan: 94 620 05 46 / 94 620 18 60. Pertsona kopuru mugatua. Maiatzaren 25ean Otxandio, Mañaria, Izurtza, Iurreta eta Zaldibarko autobusa irtenge da. Bigarren autobusa, maiatzak 26an Elorrio, Atxondo, Abadiño, Matiena eta Garai jasotzen dituena, beteta dago.

» 'Uda Topera'-n parte hartzeko izen emateko epea zabalduko da, datorren maiatzaren 17tik 27ra arte, Gazte Informazio Bulegoan, Pinondo Plazan.

ERMUA

» 'Haurrentzako tailerrak' maiatzaren 15ean, 12:30ean, Orbe kardenalaren plazan.

» 'Andaluzia zentroaren kultur astea' maiatzaren 17tik 23ra, Andaluziako zentroan.

» 'Udalekuetarako izen ematea' maiatzaren 10etik 21era, 8:30etik 14:30era, Udaletxean.

IURRETA

» 'Iurreta Txirrindulari Elkarteak ibilbideak' egingo ditu maiatzaren 15 eta 16an, 08:30ean Iurretan irtenda.

MAÑARIA

» 'Plater jaurtiketa'. Mañariako Udala II. Saria, maiatzaren 15ean, 10:00etan Garaitarren. Izena alde aurretik edo egunean bertan eman daiteke.

» 'Bordeleko feriara irteera' maiatzaren 16an, 07:00etan. Izen-ematea: Udaletxean eta liburutegian. Hamarretakoa bakoitzak berea eraman behar du.

DEIAK

IURRETA

» 'Udaleku Ibiltariak' Urbasatik Elizondora uztailaren 1etik 14ra eta 'Udaleku Finkoak' Ozaetan, uztailaren 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkarte.com, edo telefono hauetan: 665 72 82 13-94 620 03 42

ERAKUSKETA

ABADIÑO

» 'Malaire. Kinshasara bidaia'. Txelu Angoitaren argazki erakusketa, maiatzaren 10etik 22ra, Errota kultur etxean.

BERRIZ

» 'Margo lehiaketako lanak ikusteko aukera' maiatzaren 16ra arte egongo da Kultur Etxean.

DURANGO

» 'Bariarioak, lokarriak eta grafiak' Mariemi Otaolak bere eskulturak erakusten ditu. Maiatzaren 30era arte Museoan egongo dira ikusgai.

ELORRIO

» 'Nikaraguako argazkiak' Iñaki Agirianoren erakusketa, Iturri kultur etxean, maiatzaren 17tik 21era. Kainaberako hitzaldiekin lotuta.



ERMUA

» 'Eskulturak eta musika tresnak' maiatzaren 16rte ikusteko aukera egongo da Lobiano Kulturgunean.

» 'Kuba elkartasunaren uhartea' Udal Liburutegiko sarreran maiatzaren 15era arte.

MALLABIA

» 'Argazki zaharren erakusketa' maiatzaren 15etik 23ra, herriko liburutegian.

IKASTAROK

ERMUA

» 'Barreterapia' maiatzaren 18ra arte, Lobiano kulturgunean, 19:00etatik 21:00etara doan. Izen-ematea: SMSa 639 414 205 telefonora bidaliz edo e-maila bidali ermua_berba@aek.org

» 'Spinning ikastaroa' ostiralero 18:00etatik 18:50era. Informazio gehiago eta izen ematea: Udal kiroldagian.

IPUINAK

ERMUA

» 'Atximurka' maiatzaren 14an umeentzako ipuin kontaketa, herriko plazan, 18:30ean.

IURRETA

» 'Ipuin kontalaria' maiatzaren 14an, Herri Liburutegian, 17:30ean, 3-4 urte bitarteko umeentzat. 18:00etan, 5 urtetik gorakoentzat.

JAIK

ABADIÑO

» 'San Trokaz jaiak maiatzaren 14an'. 17:30ean. Porrotx Probalekuan. Jarraian, Mireia haurrentzako ipuin kontalaria, Gaztetxean. 22:00etan, Ruper Ordorika, Probalekuan. Jarraian Bertsio gaua Gaztetxean: Delirium Tren Ez, 3gabe2 eta Eskupitajo. **Maiatzak 15** (San Trokaz) 12:00etan, Meza Nagusia. Ondoren Abadiño **ezpatadantzari eta irlandarren dantaldia**, San Trokaz plazan. 18:00etan **Txan Magoa** Probalekuan. 18:00etan San Trokaz txapelketako **eskuz binakako pilota finala**, Atxarte pilota eskolak antolatuta. 21:00etan **Parrillada** txozna gunean, Txanporta plazan.

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

HOBETUZ

EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtza

Europako Gizarte Funtzak zure etorkizunean inbertitzen du

DOAKO IKASTAROK

Langileentzako eta langabetuentzako

OGIAK ETA PASTELGINTZA PRODUKTUAK EGITEKO IKASTAROA

Iraupena: 30 ordu
Aurreikusitako egunak: maiatzaren 24tik ekainaren 3ra (astelehenetik ostegunera, arratsalde).

PINTURAZKO APAINKETA-TEKNIKAK

Iraupena: 21 ordu
Aurreikusitako egunak: maiatzaren 24tik ekainaren 2ra (astelehenetik ostegunera, arratsalde).

*Oharra: Ikastaroko parte-hartzea mugatua da (langabetuak gehienez %40a)

Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Orduetgia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

23:00etan **Zea Mays** Txanporta plazan eta **Su ta Gar** txozna gunean.
Maiatzak 16an, 08:00etan Txori Kantarien **VII. San Trokaz txapelketa** Zelaieta eskoletan. 10:30ean **Binakako San Trokaz txapelketa**ren finala trinketean. 11:30-13:30 eta 16:30-19:30 **haurrentzako jolastokia** ferialekuan. 18:00etan **'Karakolaren gaua'** antzerkia Gaztetxean, Zurrunga antzerki taldearen eskutik. 20:00etan **Tortilla txapelketa** Ferialeku plazan.
 » **San Isidro jaien bezpera** maiatzaren 14an Aita San Miguel plazan, iluntzean txapliguak, eta maiatzaren 15ean San Isidro egunean meza 11:30ean.

BERRIZ

» **Andikonako Asentzio jaiak**. **Maiatzaren 15ean** Iluntzean Donien atxa jasotzea. **Maiatzaren 16an** 11:00etan meza nagusia, 11:45ean Dantzariak: Berrizko Iremiñe taldea; 12:30ean hiru segalarien arteko lehiaketa mundiala, bakoitza korrikalari eta animalia batek lagunduta. 17:30ean asto-zaldi probak. Proba ondoren, bolo joko txapelketa.

LEHIAKETA

IURRETA

» **Aita San Miguel jaietako kartel lehiaketa** martxan da. Aurkezteko azken eguna ekainaren 18a izango da, Kultur Etxean.

LITERATURA

ERMUA

» **XVIII. Euskal Liburu eta Disko Azoka**, plazan, maiatzaren 16ra arte 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Umeentzat irakurketa gunea ere egongo da.
 » **II. Ezekiel Etxebarria saria**, herrian gehien irakurri den euskarazko liburuaren egileari emango zaio, maiatzaren 13an Udaletxean 13:30ean.

IURRETA

» **'La mujer de verde'** irakurketa kluba maiatzaren 18an, 19:00etan, Liburutegian.
 » **'Burbuilak'** irakurketa kluba, maiatzaren 19an, 19:00etan, Herri Liburutegian.

MUSIKA

ABADIÑO

» **Ruper Ordorikak** **'Haizea Garizumakoa'** diskoko abestiak entzungai, maiatzaren 14an, 22:00etan, Probalekuan.

DURANGO

» **Kamarako Musika Kontzertua** maiatzaren 19an, 19:00etan, Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan. Sarrera doan.
 » **Positiva eta Porco Bravoren** Rock&Rolla, maiatzaren 14an, 22:00etan, Plateruenean.
 » **Mongo Showman**, abeslari eta konpositorea. Blues- Jazz ikuskizuna, maiatzaren 14an, 23:30ean, Misarben.
 » **Borja Estankona eta Kuntur Lee** zuzenenan entzuteko aukera, maiatzaren 14an, gaueko 22:30etan, Ateneoan.

ZORNOTZA

» **'Saraband Consort'** (Eleizetan 2010) maiatzaren 16an, 12:00etan Andra Mari Etxanon.

ZINEKLUBA

ERMUA

» **'Anticristo'** maiatzaren 20an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kulturgunean.



GU gazte barbaroko gazte taldea
URDAIBAITIK KANOA ZEHARKALDIA
 Maiatzaren 23a, igandea, goizeko 10:00etan irteera
 Madalenatik eta arratsaldeko 18:00etan bueltan Madalenan
 12-15 adin tarteko gazteei zuzendua
 Prezioa: 15€ (barbaroko bazkideek 12€)
 Izena emateko epea: maiatzaren 18a, asteartea (plaza mugatuak)
 Non: Barbaro elkartearen bulegoan (Pinondo etxea)
 94-6202540/gazteak@barbaro.com/www.barbaro.com

Maiatzaren 23an, 10:00etan

GU GAZTE
(BARBARO GAZTE TALDEA)

'Urdaibaitik kanoa zeharkaldia' egingo dute maiatzaren 23an, igandea, goizeko 10:00etan. Madalenatik irtengo da autobusa, eta 18:00etan buelta Madalenara. 12-15 urte arteko gazteei zuzendutako ekintza. Izena emateko epea maiatzaren 18ra artekoa da. Pertsona plaza mugatuak. Parte hartu gura dutenek Barbaro elkartearen bulegoan (Pinondo Etxea) eman beharko dute izena.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Robin Hood (Digital)
 Zuzendaria: Ridley Scott
 barikua 14: 19:00/22:00
 zapatua 15: 19:30 22:30
 domeka 16: 19:30/22:30
 astelehena 17: 19:00/22:00
 martitzena 18: 20:00

Umeen zinema

Viaje mágico a Africa 3D
 Zuzendaria: Jordi Llompart
 zapatua 15: 17:00
 domeka 16: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Las Viudas de los jueves
 Zuzendaria: Marcelo Piñeyro
 zapatua 15: 22:30
 domeka 16: 20:00
 astelehena 17: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa
El escritor
 Zuzendaria: Roman Polanski
 domeka 16: 20:00
 astelehena 17: 20:00

BOTIKAK

Barikua, 14
 09:00-09:00
 • Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
Zapatua, 15
 09:00-09:00
 • Navarro (Artekale 6 - Durango)
 09:00-13:30 (*14:00)
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
 • Sanroma/ Sagastizabal/ De Diego/ Balenciaga/ Unamunzaga/ Campillo
 • Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
 09:00-22:00
 • Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Domeka, 16
 09:00-09:00
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Astelehena, 17
 09:00-09:00
 • Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Martitzena, 18
 09:00-09:00
 • Sanroma (Uribarri 5 - Durango)
 09:00-22:00
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Eguaztena, 19
 09:00-09:00
 • Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Eguena, 20
 09:00-09:00
 • Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
 09:00-22:00
 • Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren.....902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK	Igerilekua
Matienea606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
Iurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Taxi auzunea688 618 690		

EGURALDIA

7 13° BARIKUA	
Goizean eta arratsaldeko lehen orduetan ateri eutsiko dio, eta eguzkia azalduko da. Arratsaldean lainoak ugartu eta berriro ere euria egiten hasiko da. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da.	
6 12° ZAPATUA	
Larunbatean giroa erabat desatsegina izango da. Ipar-mendebaldeko haize zakarra ibiliko da. Temperatura ez da 12 °C-tik pasatuko egun osoan. Euri txikia eta aterruneak luzeagoak izango dira.	
6 15° DOMEKA	
8 19° ASTELEHENA	
9 21° MARTITZENA	

AMALURRA[>]

URBIOIA



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



120 milioi euro bideratuko dituzte energia aurrezteko egitasmoetara

Ekainaren 14a arte diru-laguntzez baliatzeko aukera dute hainbat alorretako enpresetako egitasmoek

Diruz lagundutako inbertsioak 0,3 milioitik eta 40 milioi eurora bitartekoak izango dira

EEEk eta IDAEk, elkar hartuta, 2010eko IDAEren laguntza-lerro berriak aurkeztu zituzten BECen.

Energiaren aurrezte eta eraginkortasunagaz lotutako egitasmo estrategikoak sustatzeko 120 milioi euro bideratuko ditu Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutuaren (IDAE) laguntza programak. Eta industrian, hirugarren sektorean, energia zerbitzuetan... dihardutenen proiektuak baliatu daitezke diru-laguntzez.

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta IDAEk elkar hartuta, 2010eko IDAEren laguntza-lerro berriak aurkeztu zituzten BECen. Diruz laguntzen dituzten inbertsioen mugak 0,3 milioi eta 40 milioi euro artean kokatu dituzte.

Horrelako laguntza programak, tokian tokiko administrazioak energia aurrezteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko egiten dalbiltzan ahalegi-

nak sendotu, indartu eta suspertzen dituztela adierazi zuten aurkezpenean.

Laguntzak

Aurtengo deialdia ekainaren 14ra arte izango da indarrean, eta energia aurrezte helburu duten egitasmo hauek baliatu daitezke diru laguntzez:

Industria alorrean, energia kontsumitzen duten ekipoak ordezkatzeko eta horien ordezkuragarri dagoen teknologia onena darabiltenak erabiltzea.

Garraiari dagokionez, flotak berritzeko inbertsioak lagunduko dira diruz eta, horrez gainera, erregai alternatiboak sustatzea.

Eraikuntzaren alorrean, eraikinetako ekipo termikoen birgaitzea, instalazio termikoen berritzea edo barne-argiztapenaren berritzea.

Merkataritza eta industrian erabiltzen den hotz ekipoak, igo-gailuak eta etengabeko elikadura sistemak ordezkatzeko egiten diren inbertsioek ere diru-laguntza eskura ditzakete. Bestalde, energiaren eraldaketan aritzen diren enpresek ere laguntza jaso dezakete.

Egitasmoak hiru ataletan sailkatzen dira; estrategikoa, berezi berritzailea eta alorreko egitasmo bateratua.

Lankidetzak

EEEren eta IDAEren arteko hitzarmenak bultzatutako laguntza programei esker, 2006. urteaz geroztik, 2.500 egitasmo inguruk jaso dute diru-laguntza EEE-IDAEren hitzarmenaren aldetik, eta aurreztu den energia, tpb-tan adierazita, 200.000 tona baino gehiago izan da.

KIROLAK >



Argazkia: Peio Agirre

Tronua gura dute

Txotx! skate txapelketan euskaldunon hegemonia apurtu gura dute ingeles eta frantziarrek

Zapatuan laugarren aldia izango du Landako Erakustazokan izango den Txotx! Mini Ramp Txapelketak. Aurreko urte-etako irabazleak euskaldunak izan dira: Alain Goikoetxea algortarra, lehenengoan, eta Ivan Rivado bilbotarra hurrengo bietan. Antolatzailerak diotenez, frantziarrei eta ingelesei gustatzen zaie euskaldunekin lehiatzea, "maila errespetagarria dugulako"; beraz "txapelketa erakargarria da kanpokoentzat".

Baina gure maila goratzeaz gainera, "pike sano bat" ere badagoela diote, eta aurten tronua bila datozela kanpotarrak. Irabazleari eskaintzen dioten aureskua albotik beharrean aurrez aurre bizi gura ei dute. Pike sanoa ikuskizunaren mesedegarri izan dadila.

Gutzira, 60 skatelari lehiatuko dira, 17:00etatik aurrera, Landako Erakustazokan egokitutako moduluetan. Gaur egun, "Estatu mailan skate txapelketarik garrantzitsuena da, eta Europan ere sona hartu du", azpimarratu zuen Gaizka Izagarri antolatzailerak. Horregatik, ez da erraza kiniela osatzea. Rivado eta Goikoetxeaz gainera, Aaron Sweeney ingelesa bereiztu daiteke faboritoen artean. 9.000 euro banatuko dituzte saritan; 4.000 irabazlearentzat.

Kalitatea azpiegiturretan ere Skatelariak euren mailaren araberako azpiegiturak aurkituko dituzte. Urtero berritzaileak izaten ahalegintzen dira, ahal den neurrian eskaintza osatzen eta

zabaltzen. Aurten arrapala nagusiak 25 metroko zabalera du, eta ez da puntan amaitzen; azken unean behera egiten du.

Best Trick-erako moduluak V itxura izango du (Volcom delako txapelketako babeslea) eta egurrezkoa izango da. Era berean, lehenengoz, street modulua ipiniko dute, areto-futbol kantxa baten neurrikoa, skatea darman edonork ibili ahal izateko gora eta behera. Bestalde, ohi duten moduan, txotx egiteko sagardo kupel bi ipiniko dituzte.

Azkenik, eguna borobiltzeko Voxson (Alemania-Belgika) eta Sermonds taldeen kontzertuak hasiko dira, 22:00etan, Lusco-Fusko tabarnan. Kontzerturako zein txapelketareko sarrerara doan da. ■Joseba Derteano

18 Zutundu surf eta SUP Eskola

Durangar eta zarauztar baten ekimenagaz Zutundu Surf eta SUP Eskola sortu dute. Inguruko surfzaleen eta surfliarien bilgune bihurtu gura dute.

19 Emakumeen Rugby Tag Topaketa

Durango Rugby Taldeak antolatu du eta Ezkurdin ipini dute hitzordua, bihar, 16:30ean. 14 urtetik gorako neskei zuzenduta dago ekimena. Zozketak eta erregaluak ere izango dira.

Zutundu, surfzaleok

Zutundu surf eta SUP eskola sortu dute Durangon; lehorreko piratak Euskal Herriko kostaldea konkistatzeko gertu daude



Magdalena eta Illaramendi Mañaria errekan (bideoa ikusgai www.anboto.org-n). Kepa Aginako

Zutundu surf eta SUP eskola sortu dute Durangon Txomin Magdalena durangarrak eta Oier Illaramendi zarauztarrak. Dakitela hauxe da "lehorreko" herri batean martxan ipintzen den horrelako lehenengo eskola. Eskualdeko surfzale eta surfelarien bilgune bihurtu gura dute, baina ez furgoneta hartu eta noizean behin han-hemengo hondartzetara joateko bakarrik. Helburu trinkoagoak dituzte. Surfa bere adiera osoan hartuta, eremu guztietan eragingo duen olatu konstantea izan gura dute: ikastaroak antolatuz, surfelariei aholkularitza eskainiz, ikastetxeekin hartu-emanak sortuz... Surf kultura txertatu gura dute Durangaldean, "eskaria, egon, badagoelako", Magdaleneren ustez.

"Zertarako surf eskola bat Durangon?", galdetuko du batek baino gehiagok: "Pentsatzen ipinita ez da hain harriztekoa. Zarauztik Anbotora etortzen diren modu berean joaten gara hemengoak kostaldera. Badago surfaren inguruko halako mugimendu bat, eta hori bateratu gura dugu". Beste abantaila bat

Aste biren barruan sarean egongo den www.zutundu.com webgunean zehaztuko dute eskaini gura dutenaren informazioa. Eskolara batzen direnen artean taldeak sortuko dituzte, jakintza mailaren eta bestelako irizpide batzuen arabera.

Esaterako, surfaren gaineko lehenengo nozioak jaso eta, apurka-apurka, abilezia hobetzeko aukera eskainiko diete hasi berriei; edo badabilen bati, hala gura badu, bere jarduna bideoan grabatu eta zer eremutan hobetu dezakeen erakutsiko diote: "Baina ez gara ikastaro hotzeta mugatuko. Jarraipena egingo dugu. Ez dira gaur hasi eta bihar amaituko, hartu-emanetan ere sakondu gura dugulako. Jendeak asteburuko futbol partiduak izaten dituen moduan, geuk ere urte osoan finkotasun batez garatu gura ditugu ekimenak".

Adibide konkretu batez azalduta eta eskainiko duten

abaniko zabalaren adierazgarri, dagoeneko nahiko gorpuztuta duten ekimen batek *surf & english* du izena. Irakasle ingeles batek surf ikastaroa eskainiko du, baina ingelesez bakarrik: "Herrian batzen zaituenetik ingelesez berba egingo dizu, surf ikastaroa barne, beraz, hirulau orduan ingeleza eta surfa praktikatu daitezkealdi berean", azaldu du Magdalenak.

Webgunean materiala salgai
Euren webgunean surfaren inguruko materiala salgai ipiniko dute: taulak, neoprenozko jantziaz, gehigarriak... askotariko produktuak erosi ahalko dira, prezio irisgarrian.

Zutundu ezagutarazteko, ekaian zehar longskatearen inguruko jaialdi bat egiteko asmotan dira: erakustaldiak, musika, material zozketa... Ordura arte itxaron ezin duenarentzat: info@zutundu.com. ■J.D.

Eskaintzak >

SUP: surfa denen eskura ipintzen duen modalitatea

Zutundu ez da surf eskola bakarrik, surf eta SUP (Stand Up Paddle) eskola baino. Modalitate honek adinaren zein abileziaren trabak ezeztatu ditu, edonork praktikatu dezakeelako. "AEBetan fama itzela du, eta Europan errotzen dabil orain. Iraultza bat izango da, seguru gaude", dio Magdalenak.

Arraun baten laguntzagaz eta normala baino taula

zabalagoaren gainean, Urdai-bain, laku batean zein itsasotan lasai ibiltzeko aukera eskaintzen du, ahalegin berezirik egin beharrik barik: "Neure aita ere trankil-trankil ibiliko litzateke han gainean".

Beraz, kirol aproposa da familia giroan arratsalde bat pasatzeko zein ezkondu aurreko agur egunetan ekimen berezi eta berri bat egin gura duenarentzat.

Iker Saenz de la Cuesta
Areto-futbol entrenatzailea



Ero, ero, ero, eroaldia

Beti Muganek idatzitako abestian bezala, azken jardunaldiak gure taldeentzat eroaldi galanta izan dira, eta abesti horretan eginiko galderarentzat (zer daukazu buruan?) erantzun argia daukat: areto futbola!

Sasikoa Ak orain gutxi miraria behar zuen jaitziera saihesteko, eta miraria azken lehia gertatu zen. Landakon, Soloarteren kontrako partidua bukatzeko bost minutu eskas geratzen ziren, markagailuak 0-4koa adierazten zuten, eta, galduz gero, nazional A mailatik kanpo geratzen ziren. Sasikoak dagoeneko bost falta eginak zituen, eta oso latza zen markagailuari buelta ematea. Soloartek une horretan irabazitza eman zuen partidua, eta hori hankasartze barkaezina izango zen. Sasikoak atezain-jokalaria atera zuen, eta amen esan orduko berdinketa igo zuen markagailura. Partidua ez zen hor amaitu, eta hil ala bizi, Sasikoak, Bubbyren bitartez, eta bost segundoren faltan, garaipenaren gola sartu zuen, zaleen pozerako. Ez sinestekoa.

Bestalde, Kurutzia A liga amaiera polita egiten ari da (azken bost partiduetan lau irabazi eta bat berdindu), eta horrek bultzada txikia eman dio burua putzutik ateratzeko. Oraindik ez dakite zenbat jaitziko diren euskal ligatik, baina, azken bi partidua irabaziz gero, datorren urtean merezimenduz euskal ligan jarraitu beharko lukete. Liga berean, Sasikoa Bk lan bikaina egin du bigarren itzulian, eta oraindik igotzeko aukerak dituzte, nahiz eta azken jardunaldian huts egin.

Ezin ahaztu Mendibeltzek lortutako igoera. Esan beharrik ez dago, Durangon, zaleak ez direla aspertzen.

Zorionak talde guztiei, denboraldi eroa baina polita jokatu duzuelako, eta adi:

Oraindik ez da bukatu!

Adituarentxokoa

Elorriok igoera lortu du eta DRTk mailari eutsi dio

Elorriok goren mailan jokatu du datorren denboraldian. Uritarrari 1-2 irabazi zion, eta lurretak emaitza beragaz galdu zuen Leioan. Ondorioz, igoera matematikoa lortu dute jardunaldi biren faltan.

Durango Ilarduyak 35-5 menderatu zuen Ingenieros Industriales Arripausetan, eta ohorezko B mailari eutsi dio. Zaleek ez zuten hutsik egin eta lepo bete zuten Durangoko errugbi zelaiak. ■J.D.

Herriartekoan Durango dugu ordezkari bakar

Durango da Bizkaiko Herriarteko Txapelketan aurrera darraien Durangaldeko ordezkari bakarra. Santurtziri 1-2 irabazi ondoren, hurrengo kanporaketarako txartela eskuratu dute durangarrek. Zeanuri izango dute hurrengo arerio.

Abadiñok Barakaldo izan du aurkari, eta 2-1 galdu zuen kanpoan. 22-18, 22-1 eta 8-22 izan ziren azken emaitzak. lurretaren kasuan, Bermeora joan ziren, eta 2-1 galdu zuten hauek ere. 6-22, 22-6 eta 22-11 emaitzak erakutsi zituen markagailuak. ■J.D.

Agenda

FUTBOLA
LEHENENGO ERREGIONALA
Zaldia - Leioa B

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

lurretako - Apurte B

Domekan, 17:00etan, Larrakozelain

Elorrio - Atxulaur

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

HIRUGARREN ERREGIONALA

Berriz B - Gordejuela

Zapatuan, 17:30ean, Berrizburun

ARETO FUTBOLA

OHOREZKO B MAILA

Elorrioko - Laskorain

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa - Kurutzia

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

SASKIBALOIA

NAZIONAL A MAILA

Tabirako - Cafes Aitona

Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

(igoera fasea)

Zaldia - Anbotopeko

Zapatuan, 18:30ean, Zaldibarko kiroldegian

PILOTA

OIZPE ETA ESKOLARTEKOA

Oizpe: Umetxoan maila

Escolartekoa: finalaurreak

Leioa-Lea Ibarra

Berriz-lurreta

Bihar, 16:00etan, Berrizen

SAN TROKAZ

Finalak: Gonzalez-Etxebarria

Uriarte-Aspuru. Domekan,

10:30ean, Abadiñon, Trinketean

www.zutundu.com
webgunea prest izango dute aste bitan; han zehaztuko dituzte ekintzak

azpimarratu du Illaramendik: "Surfak badu inplizituki bidaia-tearen esangura. Ni kostaldean bizi naiz, baina sasoiaren arabera, adibidez, Izpazterreko Ogeia-ra joaten gara, eta ez dago bertan ere. Durangon, aldiz, Zarautzen, Lagan edo Deban egon zaitezke 40 bat minutuan".

Nork gorago amaitu jokoan biharko derbian

Areto-futboleko Kurutziagak eta Durangoko Kulturalak derbia jokatuko dute bihar

Emakumeen areto-futbol liga amaitzeko jardunaldi biren faltan, Kurutziaga Ikastolak eta Kulturalak derbia jokatuko dute bihar. Talde biak goian dabiltzan arren —hirugarren eta laugarren— ez dute mailaz igotzeko aukerarik. Hala ere, bata bestearen artean lau puntuko alde dago, eta Kurutziaga, derbia irabazita, puntu batera ipini daiteke. Aurten hirugarren postuak auzotarren aurretik geratzea esan gura du eta hori ere sari tentagarria da. Kurutziagak, debut urtean, lau onenen artean sartzea lortuko

du. Lorpen horrek meritu handiagoa du denboraldi osoa jokalaririk aldetik justu antzean ibili direla kontuan hartuta: "Gutxi hasi ginen eta gutxiagok amaitu dugu; orain sei jokalaririk bakarrik gabeiltza. Horregatik, oso pozik gaude denboraldiagaz", dio Joana Gerrikabeitia jokalaria.

Kulturala ohituta dago goiko postuetan lehiatzen, eta aurten ere ez du hutsik egin. Geratu zaien arantza bakarria Stilo Berrio eta Getxo lehenengo bi sailkatuen kontrako lau partiduetan galdu izana da. ■J.D.



DRTren emakumeen taldeko jokalaririk gehienak Ezkurdin egongo dira zapatuan.



Kurutziaga Ikastolak estreinako urtea izan du areto-futboleko.

Gazteak errugbira erakartzeko topaketak bihar Ezkurdin

14 urtetik gorako neskei zuzenduta dago DRTren ekimena

Durango Rugby Taldeak eta Sukia rugby eskolak 14 urtetik gorako neskei zuzendutako Errugbi Tag topaketa antolatu dute larunbatean, 16:30etik aurrera, Ezkurdin. Helburua errugbia eskualdean ezagutaraztea eta modu ludikoan gazte zein helduei errugbiaz gozatu dezaten aukera eskaintzea da.

Horretarako tag modalitatea aukeratu dute. Parte-har-

tzaileek zinta batzuk lotzen dituzte gerrian eta kontrarioari zinta hori kentzean datza jokoa: "Kontakturik gabeko errugbia da, ez da plakaketarik egongo. Joko dibertigarria da; datozenek ondo pasatuko dute", azaldu du Lierni Areitio DRTko jokalaria.

Jokoez gainera, arratsalde osorako egitaraua antolatu dute. Parte-hartzaile guztiek

errugbi topaketarako beren beregi egindako kamiseta bana jasoko dute. Horrez gainera, hainbat sari zotz egingo dituzte, eta Durangoko emakumezko errugbi jokalaririk ohien argazki erakusketa ikusgai egongo da.

Izena egunean bertan eman daiteke, nahiz eta, gura duenak, Durango Rugby Taldearen webgunean ere baduen horretarako aukera. ■J.D.

**LARANJAZ
JANTZ ZAITEZ**

**Euskaltel
Euskadi**ren arropa

%20
merkeago



Gure dendan
aurkituko duzu!
beti zure taldearekin

maillota
» 39,95 €

kulota
» 47,95 €


haurrentzako
maillota eta
kulotak
» 52,95 €

Fray Juan de Zumarraga, 2 Durango

94 466 88 88



DENPORAPASAK >

	Oihu Pl., barazki mota	Hortz birrintzaile Bizki	hedatu, zabaldu
	Letoniako hiriburua		
	Izerdikor		
Durangoko jauregia Gaueko zaindaria	Ipar EH-n, arroz Urratzera behartua		
Bretainiak o hiria Harri txiki		Kontso- nantea Zorroztasun- nik gabea	
Euskal sindikatua Nafarroako herria		Joan den urtea Asiako estatua	
		Musika nota Pl., infusio mota	
Israalgo hiria	Ari izana Otxl, ail		Pikuaren erdian
Titanioa Txaradiak		Errumania- ko hiria Röntgen	

1

		4	8	6	7
		7			3 8
2		9		7	
			8	7 1	
	5		2		
	2	9 3 1		8	
4 9		1 7		5	
				1 9	
6		4 5		3	

2

	9	6 1			
1			7		9
					4 3
		7	5		2
			9		8
		9			6
4	6		8		
			3	2 5	
3 1			9 7		

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Patxadaz hartu astea, lan handia izango duzu-eta. Zure osasunari erreparatu, eta ez egin ahal duzun baino esfortzu handiagoa.

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Ate joka zabilta, baina badirudi bat bera ere ez dela zabaltzen. Tematia izan beharko duzu.

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Azken aspaldiko arazozen intentsitatea bajatu da oraindik, eta dena zuk ipinitako indarragatik. Orain ereindakoa jasotzea tokatzen zaizu.

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Lagunekin zu zaren modukoa agertu. Aste ona datorkizu, hainbat gertaerek argituko dizute ikusmen lausotua.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Bide berriei ekiteko momentua, ezin duzu orain arte legez jarraitu, bide honek ez zaitu inora eramaten, eta gainera ez zaude gustura.

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Ez ibili txutxumutxuka, zuk egiten duzuna zuri ere egingo dizute bestela. Beste giro batzuetan mugitzea komeni zaizu.

Libra
irailak 24 - urriak 23
Arazoak konpontzeko bide onena horiei aurre egitea da. Dingilizka dituzun kontuak konpontzeko aste paregabea da hau.

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Sentimenduak argitzeko momentua heldu da, ez egon beste aukera bat noiz etorriko itzaroten. Dagoeneko hainbat aukera pasatu dira.

Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23
Aste hau ez da proiektuak martxan jartzeko ez da garairi aproposena, zu ez zaude ohi duzun eta behar zenuen bezain indartsu.

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Ate bat ixten den tokian leiho bat zabaltzen da. Hemendik aurrera gauzak hobera joango dira, zuk ere hori nahi duzu-eta.

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Egiteko leku guztietan dituzu. Aste honetan, gainera, ezustekoren bat suertatu daiteke, izan pazientzia eta behar baduzu laguntza eskatu.

Piscis
otsailak 19 - martxoak 20
Ezin da beti jaietan ibili, orain lan egitea tokatzen zaizu; aste konplikatu, lan askogaz.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Zorionak **Urtzi!** Maiatzaren 17an 10 urte egingo dituzu. Ondo pasatu zure egunean eta jarraitu hain jator. Aritz, guraso eta familiaren partez.



Zorionak **Nagore Angiozarrek** maiatzaren 10ean 13 urte egin zituen. Zorionak eta musu potolo bat aita, ama eta Leireren partez.



Zorionak **Libe Basabe!** Nahiz eta zure egunean Londresen egon, ondo pasa, happy birthday. Bueltan ospatuko dugu. Etxeko eta Xixilin partez.



Zorionak **Matienako Maite eta Martin Petiteri.** Maiatzaren 13 eta 24an "25" eta "26" urte egingo dituztelako. Patxo handi bat eta ea aurten pastelak ez diren bidean galtzen. Zorionak bikote.



Zorionak **Adriana!** Oso ondo pasatu gaurko eguna. Musu handi-handi bat zuretzako etxeko guztien partez.



Datorren domekan, maiatzaren 16an etxeko printsezak 5 urte egingo ditu. Zorionak **Amets** ama, aita eta Josebaren partez.



Zorionak **Andoni!** Domekan 11 urte egingo dozuz, txokolatzeko pastelen bat prestatuko dozu? Mosu handi bat familiaren partez!



Pasaden maiatzaren 10ean **Euri Gaztelurrutiak** 4 urte egin zituen. Zorionak eta musu handi bat etxeko danon partez.



Maidar Barrutiak urteak egin zituen eguaztanean, maiatzaren 12an. Zorionak Garaiko familiaren partez. Ondo pasatu zure egunean.



Gaur, maiatzaren 14an **Gontzal Sarrigoitiak** urteak egingo ditu. Zorionak etxeko partez. Asteburua ondo pasatu.



Jontxu, domekan urtetxo bat egin behar duzu. Ia San Trokazetan txilinak estrenatzen dituzun. Zure laguntza Manex eta izeko sorgin guztien partez. Maddi, Intza, Manex eta Izaron partez ere ondo pasa eta mosu handi bat.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

Zorionak **Ane Murgoitio-beñari.** Aste honetan zotz egin dugun tarta zeuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Tenplete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02



Joxe Garaizabal
Irakaslea

"Ezin daiteke dantzari bako San Trokaz egunik egon"

Dantzari belaunaldi ugariagaz egingo du dantza Ramon Zarrabeitiak Talde Batuak 40. urtemugan

Abadion dantza taldeek beti izan dute garrantzia handia. Talde Batuak dantza taldeak 40 urte egin dituela-eta, azken urteotan dantzan ibilitakoak batuko dira aurtengo San Trokaz jaietan, hilaren 22an. Gogoz hartu dute jai herriko dantzari eta dantzari ohiek. Ramon Zarrabeitiak ere bai.

Zelan sortu zen Talde Batuak duela 40 urte?

1970ean Abadiñon Merindade Eguna antolatu zuen Gerediagak. Egun horretarako gure taldeak -lehen San Trokaz zeukan izena- dantza egiteko konpromisoa hartu zuen, eta Abadiñoko auzo bakoitzetik dantza talde bat edo bi ateratzeko konpromisoa ere bai. Guztira, 8 talde berri sortu ziren egun horretarako. Gure talde nagusiak ere parte hartu zuen, eta 50 urteko gorakoen talde bat ere atera zen. Horiek hamar taldeek Merindadeko beste dantzari guztiekin dantzatu genuen. Ordurako batu ginen, eta orain, 40 urte pasatuta, egun hartatik gaurko egunera arte egon diren talde guztiak batzen ahalegindu gara.

Dezente batuko zarete.

Guztira, nesken 11 talde eta mutilen 13 egongo gara. Talde Batuak ekitzeleko lana egin du, eta herria aztoratuta dabil, ilusioagaz. Herrian beti egon da mugimendua dantzari taldean; gauza asko irten da dantza taldetik.

Zelan doaz zuen taldeko entseguak?

Beno, bizkortasuna falta zaigu! Entseguetan, *Zortzinangoak* egiteko-eta, leku aldaketetan bultzaka ibili behar! Bakarrean egiteko, txistulariak norberari jarraitzen dio, baina talde guztiek batera dantza egin behar dugunez, txis-

tulariak dantzari on erritmoa jarraitu beharko du, eta guk gazteei jarraitu behar! Denok batzeko asmoa iaztik dator, eta gazteak, batez ere neskak, iaztik dabilta prestatzen. Gu berandutxo hasi gara entseguetan. Beroketak egiterakoan, koloreak gorritu barik zuritu egiten zaizkigu... Egunean bertan anbulantziak ekarri beharko dira badaezpada!

Afana, behintzat, berreskuratu duzue.

1963an dantzari ibilitako batzuk ere animatu dira. Abadiñon beti egon da dantzarako tradizio handia. 1962an zer edo zelan taldea apurto egin zen, eta 63rako Julian txistularia taldea osotzeaz arduratu zen. San Trokazetarako dantzariak behar ziren, San Trokaz egun bat dantzari barik ezin daitekeelako egon! Beti izan da garrantzitsua egun hori. 1963ko talde hartako dantzari batzuk animatu dira, eta batzuekin eta besteekin taldea osatu dute.

Dantzan hasi zineneko zer oroitzen daukazu?

1963an, dantza taldea osatzeko orriak jarri zituzten, eta zaparro piloa apuntatu zen, ni baino nagusiagoak. Batzuk dantzarako nahiko torpeak ziren, gainera. Gu gazteak begira egoten ginen. Lantzean behin erretiratu egiten zuten torperen bat, eta gazteren bat sartzen zen taldean. Ni beti izan naiz dantzari familiakoa. Aita Iurretakoa izan da, bizi guztiko dantzaria. Anaia nagusia ere dantzaria,

bestea atabaleroa eta dantzaria... Urtero-urtero joaten nintzen taldearen entseguetara, ea taldean sartzen noiz utziko zidaten. 14 urteagaz jendea kanpora joaten zen ikastera, edo nagusiagotan soldadutzara, eta gazte txoagoak sartzen ginen taldera.

1970eko Merindade Egund hartan ere izan zinen.

Bai, eta gainera urte horretan *Erregela berriak* sartu ziren. Aldekoa Berrizko txistulariaren doinu berriagaz aurrekua-aren doinua aldatuz. Jaietan aurreku txapelketak anto-

latzen ziren. Bakoitzak bere doinuagaz egiten zuen, eta 70ean doinu bera jarritzen denontzat, eta pausuak moldatu behar. Lehen Abadiñoko koalaburtxoagoa zen, eta dantzan pauso berriak sartu behar izan genituen. Herriko txistulariek belarrik zekiten doinu zaharra, eta Abadiñoko doinua galdu egin zen. Ibili gara txistulari zaharrei galdetzen, ea gogoratzeko kapaz diren eta ea grabaziorik bada- goen, baina ez.



Ramon Zarrabeitia

Abadiñarra da, betidanik dantzari familiakoa

58 urte ditu

Askatasun mugabakoa

Umetan hogeita hamar urtekoak nagusiak dira eta heriotza ez dago inon; gaztetan berrogeikoak dira nagusiak eta heriotza berba bat beste-rik ez da; heldutakoan berrogeita hamarrek dira nagusiak eta heriotza beste gauza da; zahartzaroan, egiatik hurrean gagozenez, heriotza gurea izaten hasten da.

Nahiz eta heriotza / helduko zaidala jakin, / ez dut / haatik / horren aurka / borrokatetik etsiko, / ez nau / uste-kabea harrapatuko! / Bizi naizeno bizitza kantatuko dut.

Jaiotzeak heriotza zor. Bizirik iraute hutsak ez dau bizitza ziurtatzen, eta batzuetan bizitza oso gogorra da.

Bagdadedeko morroiak Heriotzaren amenazu keinua ikusi eta ihes egin eban, nagusiaren zaldirik onena hartuta, Ispahanera. Nagusiak Heriotzagaz topo egin eta zergatik egin eutsan amenazu keinua morroiari itaundu eutsan, eta honek erantzun: "Ez, ez da amenazu keinua izan, harridurazkoa baino. Harritu egin naz morroia hemen ikusteaz, hain urrin Ispahandik, gaur gauean Ispahanen hartu behar dodalako zure morroi hori."

Sarako eliza dorrean idatzita dago: "Oren guztiek dute gizona kolpatzen; azkenekoak du hobirat igortzen."

Zientzialari, kazetari eta filosofoez gain, zuek be aurkitu dozue zuek erraldoia. Zuen aurpegi bizi hosto bihurtu da. Zer gogorra izan behar dauen batzuetan bizitza, heriotzari ihes egin behar- rean bila joan eta askatasun iturri izateko. Seguru nago ez zariela bat be aspertzen; berbetan, barrez eta kantuan. Halan be, maite zaituet. (Paul eta Joxan gogoan)



maristak
Ikastetxea - Durango

'Batxilergoak eta Zikloak'

Aurrematrikulen epea zabalik!

Aurten
BIOLOGIA
batxilergoan

Laguntzak
eta bekak
ikasteko!

informazio gehiago
www.maristak.com • 94 681 00 58
Abasolo 6, Durango 48200 Bizkaia
san-jose@maristak.com



